

TXILLARDEGI ETA SAIZARBITORIAREN NOBELAGINTZA

(irakurlearentzat gidaria)

IBON SARASOLA

KRISELU

1972-1973 urteetan hamabi nobela publikatu dira euskaraz. Hauetatik bi itzulpenak dira eta gainerako hamarrak kreazio-lanak. Euskal nobelagintzaz arduratzen den orok badaki zifra hauek record bat suposatzen dutela eta gure prosagintza literarioak azken urte hauetan izan duen aurrerabidearen lekuko gertatzen direla. Baina aurrerabide honek espero arazten duen etorkizun esperantzatsua errealitate fin-ko bihurtzeko «nobelagile hobeagoak» behar ditugu, inoiz esan den bezala.

Zenbaitetan esana dut nobelagile bat ez dela ezerezetik sortzen den mirakulu bat. Kreadore bat giro bati zor zaio eta halaber kreatze-tradizio bati, ezinbestean. Eta nobelagintzaren giroa batez ere irakurleek osatzen dute. Irakurlego aditu bat da nobelagintza oparo baten aurrekondiziorik lehenena eta sostengarririk seguruena. Irakurle esijente bat da nobelagile erresponstabilearen akuilari zorrotzena eta kontsolatzailerik preziatuena.

Liburu honek laguntzaile bat izan nahi luke euskal nobela-irakurlea irakurle adituago eta esijenteago bat bihurtzen. Ikus arazi nahi dio nobela bat egitea ez dela askok uste duen bezain gauza erraza eta ezdeusa, nobela taxutu baten atzean buruhauste asko geratu direla egilearentzat, eta kreadorearen neke hauk ordaingabe geratzen direla askotan, irakurlea, bere literatur-ezjakinduria eta preparazio falta gatik, ez delako gauza izaten nobelaren orrietan zehar eskaintzen zitzaion errealitate literarioaren alde positiboek eta eskergarriez jabetzeko eta gozatzeko. Salatu nahi du, ondorioz, gure nobelagile aurrerakoienek (aurrerakoi nobelagile bezala) ez dutela merezi duten irakurleko nobelazale eta gaurko literaturgintzan jantzia, eta sensibilitate-gabezia, inkonprensioa, kritika erresponsable eta ohartu baten falta, hitz batean irakurlegoaren kalitate txarra dela gure nobelagile zintzoenentzat behatoparik desesperanteena bere eginkizunean.

Badakit euskal nobelagintzaren problematika ez dela irakurlegoaren egoeran abitzen. Baina uste dut gure artean gehiegi hitzegiten dela idazleaz eta gutiegi irakurleaz gure literaturaren akatsak eta hutsak aipatzeko orduan. Ez dugu gogoan hartzen literaturgintzaren prozesuan irakurlearen eginkizuna kreaizailearena bezain garrantzitsua eta beharrezkoa dela, eta gure literatura sendotzeko ahaleginek ezin dutela abaztu irakurlegoaren literatur-beziketa.

*Nere asmoa nobela bat «irakurtzen» erakus-
tea denez gero, kritika formalista bati lotu natzaio
nere saiaeran, mende-haserako errusiarren eta gaur-
ko neoformalisten lanetatik atera dudan irakaskin-
tzaz baliatuz. Txillardegiren eta Saizarbitoriaren orain
arteko nobelen irakurketa bat egitera mugatu naiz,
baina uste dut ez zaiola inori kostatuko hemen adie-
razten direnak beste nobelagileei hedatzea. Bi auto-
reok hautatu ditut nere ustez ziklo bat hersten eta
beste bat irekitzen duten bi pauso dezisiboak dire-
lako gerraondoko euskal nobelagintzan.*

*Badakit nobela batetan beste irakurketa asko
egin daitezkeela, baina uste dut hau zela egokiena
nere asmoen arabera. Azpimarkatu nahi dut hori nere
lanaren zentzua oker interpreta ez dedin.*

*No vull acabar sense recordar en Pere Sa-
riola i la M.^a Rosa Vallribera per uns anys de convi-
vencia en els quals, entre altres coses, es va realitzar
aquest treball.*

Ibon Sarasola. Donostia, 1974 abendua

1. ERABERRITZE PROBLEMATSU BATEN PROBLEMAK: TXILLARDEGIREN NO- BELAGINTZA

1.1. LETURIA-REN EGUNKARI EZKUTUA

1.1.1. «Leturia-ren egunkari ezkutua», Txillardegiren lehen nobela, 1957an Euskaltzaindiaren ardura-pean, «Len eta orain» sortan argitaratua zenean, etapa berri bat hasi zen euskal-nobelagintzan. Urte hartan bertan agertu ziren Txillardegiren obraren lehen oihartzunak, euskal-literaturak ezagutzen ez zuen era batetan: Gandiagaren lehenetako poema bat, ia lehenena, «Zurekin noa» (1) izenburutzat duena, «Txillardegia jaunari» eskainia dago eta gaitzat hartzen duen gizona,

(1) Ik. EGAN, 1957, 5-6, 301. o. Poema bera «Elorri» liburuan (1962) berrargitaratu zen, 157. orrialdean.

«Gizon-begi-goritu,
gizon-jagi-zale,
gizon-grin-en-katigu,
gizon-miñez bete...»

Gizon:

Leturia da dudarik gabe. Halaber, Aurraitzen «!...?» poema (2), «Txillardegiri tamaltasunez» eskainia eta existentzialismo ongi ulertu gabe bat mostratzen duena, nobela honek idazleen artean izan zuen eragin ez-ohizkoaren lekuko da.

Hildo berean, «Euzko-Gogoa» aldizkarian «Leturia-ren egunkari ezkutua»ri buruz agertu zen aipua ez zen izan beste nobelei egin zitzaienaren antzekoa: ohi zenetik zeharo kanpo, aldizkariaren orrialdeetan, 1956.go Uztaila-Daguenila (*sic*) alean, nobelaren «Negu» zatiko azken pasarteak argitara ziren. Bestalde, aldizkari berberean, 1957.go Orrila-Garagarrilla alean, bi kritika azaldu ziren, bat Ibiñagabeitia'tar Andimarena eta bestea Etxaniz'tar Nemesirena. Bi kritikok nobelaren mamiaz ari dira, ez azalaz, euskal-kritikak garai hartan ohi zuen bezala. Azalari buruzko axolagabetasun hau Andimaren kritikaren perpausa honetan nahiko argi ikusten da: «Nobela au irakurtzean ez zait bururatu gramatika danik ere».

(2) Ik. EUZKO-GOGOIA, 1958, Orrila-Daguenila, 247. o.

1.1.2. Obraren mamia. Zeren Txillardegiren lehen nobela, zerbait bada, mamitsua baita, hitzaren zentzurik hertsienean. Hain zuzen, hau dateke «Leturiaren egunkari ezkutua»k euskal-nobelagintzara eta are euskal-literaturara ekarri zuen gauzarik garrantzitsuenena. Kasu gehienetan ez azalaz eta ez mamiaz, eta bakan batzuetan azalaz ia bakarrik arduratzen zen literatura batetan (3), Txillardegiren obraz eraberritze izugarri bat gertatu zen, aurrerago, 1964ean gauzatuko zen iraulketaren elementu inportanteenetako baten hasiera.

Mamitasun hau nonnahi nabari da nobelan. Are gehiago, esan daiteke nobela intelektual baten aurrean gaudela. Horrela erreferentzi literario eta artistikoen numeroa izugarria da eta aurreko euskal-nobelagintzari buruz guztiz ohituraz kanpokoak: Gauguinen kuadroak (27. o.); Debussyren «Les Jardins sous la pluie» (31. o.); «Marty» filma (52. o.); Gerard Bahr (65. o.); Shakespeare (66.o.); Kafka eta Amiel (74. o.); Budha (75. o.); Shakespeare (80. o.); Ortegaren «Don Juan» (86. o.); Freud (87.o.); Banquo eta Macbeth (88. o.); Gideren problema (89. o.); Homero (93. o.); Buda (103. o.); Paul Valéry (115. o.); Shakespeare (122. o.); Agustin Deuna (123. o.); Euclides (126. o.); Muntheren «San Mitxele'ko Is-

(3) G. Aresti eta J. Miranderen garaiko poemagintza dateke joera honen exenplurik argiena.

tori»a (128. o.); Unamuno (131. o.); Lizardi (132. o.).

Intelektualismo honen adierazlerik zuzenena, Leturiaren gogamenek hartzen duten parte ikaragarria da. Nobelaren lehen zatiak eta Pariseko pasartearen hasiera alde batetara uzten badira, gainerako ia guztia Leturiaren barne-problema azaltzera eta desarroilatzen da. Problema hau, L. Mitxelenak sarrera-hitzetan eta A.-k «Peru Leartza'ko» ren hitzaurrean adierazten duten bezala, aukeratu beharrik sortzen duen larritasuna da. Alde honetatik, obraren argumentoa ez da Leturiaren ideak eta gogamenak adierazteko bide edo hildo ia soil eta huts bat besterik.

Nobela «udalenean» hasten da (4). Mirenganako maitasunak ateratzen du Leturia bere gogobaretasunetik. Baina maitasun hark ezin du hase haren zorion-nahi metafisikoa. Parisera alde eginik, bere planteamoldeen hutsez ohartzen da azkenean.

Argumentoak eta nobelak berak duen kutsu

(4) Detaile hontatik bertatik hasita, erraz da ikusten obra osoa girotzen duen sinbolismoa. «Peru Leartza'ko»ren hitzaurrean esaten den bezala, «'Leturia' liburuan, bestalde, irudipenetan aurkeztutzen da dana: parkea, Miren eta arekiko maitetasuna, Paris'a joatea, eta abar, sinboloak dira» (VIII o.). Sinbolismoaren kontu hau baztertu egin dugu geure estudioan, hemen hartu den ikusmoldeari ezer gaineratzen ez diolako.

existentzialista nabaria da: egileak berak onartu du eta kritika aho batez mintzatu da honi buruz. Baina «Leturia-ren egunkari ezkutua», bere ereduak (Sartre, Camus eta beste zenbaiten nobelak) baino intelektualagoa da. Ez dugu Txillardegiren lehen obran haren «maisuenetan bezanbat «literatura» aurkitzen, alegia, ez dugu hartan hauetan bezanbat pasarte eta alde «ez-funtzionalik» aurkitzen: «Leturia-ren egunkari ezkutua»n ia guztia (ez dena baina bai ia guztia) funtzionala da, dena dago zuzenki obraren tesisaren (edo, hobeki, «mezu»aren) zerbitzu pean. Nobela funtzionalegia da, funtzionalegia nobela bat izateko. Horrela, obran agertzen diren bigarren mailako pertsonaiek, Sabineek, Kepak, Yonek, Mikelek, ez dute gauzatasunik berez, ez dakigu ezer haiez esaten dutena baizik. Eta esaten dutena, «esan behar dutena» da, noski. Bada, dena dela, hemen atenuante bat, gogoan hartu behar dena, nobelaren alde: egunkari baten aurrean gaudela eta era honestako nobeletan zilegiztatzenago direla pertsonaien erabiltze hauk; «egunkari ezkutu» batetan ez du zentzu handirik pertsonaien deskribizioa egitea, zeren egileak bai baitaki nolakoak diren eta, «ezkutua» denez, ez zaio beste inori axola. Beraz, deskribizio horiek ez dira kontagarri.

Intelektualismo honek paisajearen ikusmoldea ere kutsatu egiten du. Paisajeak, adibidez, Gauguinen kuadroak eta Debussyren musika gogoratzen

dizkio Leturiari, hots, erreferentzia kulturalak, ez bibentziak. Edo bestela, era honetako pentsamenduak:

«"Zerubide" au txit da polita, parke guziak bezela. Ez dakit "Zerubide" ote den polita, ala "Zerubide" bera ez dena, ots, bere parketasuna.» (22. o.)

Noski ez dela guztia honela, baina joera hor dago eta, joera bezala, adierazgarria deritzaigu euskal-nobelagintzaren texto-inguruan.

1.1.3. Baina, nahiz gerora begira inportanteena izan, Txillardegiren obrak dakarren eraberritzea ez datza soilik mamiari ematen dion lehentasunean. Hain zuzen, «Leturia-ren egunkari ezkutua»ren aurretik argitara ziren nobela guztiak giro arrantzale edo nekazari baten, hots, zientzia ekonomikoak «lehen sektore» izendatzen duen produkzio moldea hezur-mamitzen duen giro batetan desarroilatzen dira, Daskonagerreren «Atheke-gaitzeko oihartzunak»etik hasita, Etxaideren «Joanak-joan» arte. Are gehiago, I. Sarasolak (5) adierazi duen bezala, aurreko euskal-nobelagileek sensibilitate-gabezia nabarmen bat mostratu dute giro urbanoa endelegatzeko. Hau argi

(5) «Euskal literaturaren historia», 60. o.

ikusteko, aski da D. Agirrereren «Garoa»n Nerbion iguruari buruz edo T. Agirrereren «Uztaro»n Donostiako eta Zarautzko dantza- eta joko-etxeei buruz esaten dena kontuan hartzea.

Txillardegiren lehen nobela honetan, berriz, lehen zatian bertan, giro urbano batez inguraturik aurkitzen gara: parke batez, urmael bat duen parke batez, dantza-orkestra baten oihartzunak entzuten diren parke batez, hain zuzen. Leturia bera ere gizaki urbano bat da: irakurtzen dituen liburuak, ezagutzen dituen pintoreak eta musikalaria ez dira aurreko euskal-nobelagintzako pertsonaiek ezagutzen zituztenak; orduko 140 kilometro egiten duen tren batetan doa Parisa; bere leihoaren azpitik «automobilak eta motoak, "scooterrak" batez ere» pasatzen dira. Eta guzti hau ez da eraskin edo adabu bat nobelaren estrukturan. Aitzitik, Leturia bezalako pertsonaia batek eta bere barnean bizi duen problematikak nahi-ta-ez eskatzen du horrelako ingurune bat, ez litzake hortik kanpo (nork imajina dezake Leturia giro baserritar batetan) justifikatuko.

Argi dago, gainera, autorea giro urbano hau nabarmentzen ahalegindu dela, haren jokabidea ez dela oharkabea izan. Obran agertzen diren zenbait motibok (formalistek hitz honi ematen dioten zentzuan) giro urbanoa azpimarkatzeko funtzioa dute soilik, ezin daitezke beste ikuspegi batetatik esplika.

Adibidez, «Cannes Club» delakoa (43. o.), «Marty» filma (52. o.), irratian entzuten den «Three Coins» kanta (47. o.). Nobelaren harirako beste edozein kantak berdin balio zukeen. Modan zegoen ingeles kanta hau aukeratzean datza, hain zuzen, kantaren funtzio urbanoa. Hildo berean, eztai batetan jotzen duen dantza-orkestra baten motiboak (27. o.) funtzio bikoitz bat du: alde batetik giro urbanoaren nabarmentze hau eta bestetik Leturiak ezkontzari buruz izango dituen burutazioei bide ematea. Baina argi dago burutazio hauk beste era batez, beste edozein aitzakiren bitartez eman zezazkeela autoreak: baina giro urbano bat adieraztea permititzen dion molde bat aukeratu du.

Joera hau exhibizionismoaren antzeko zerbaitera heltzen da zenbait mementotan, (adibidez, honenbeste izen arrotz eta frantzesezko aipuak (93. eta 95. o.). Baina gertakari hau bere neurri zuzenean juzgatzeko, ezin da atera bere texto-ingururitik, hau da, 1955 inguruan euskal-literatura eta bereziki nobelagintza aurkitzen zen egoeratik. Txillardegiren obra egoera honen aurkako erreakzio bat (baina batera, halabeharrez egoerak berak markatzen zuen erreakzio bat) izan zen. Eta alde honetatik, aurrerago ikusiko den bezala, «huts» batez baino areago, alde positibo batez mintza gaitzke.

«Udaberri» partean, 15. zatian, egiten den

giro nekazari baten deskribizioa ere pentsamolde urbano batek taxutua da: hirigizon guztiek (eta, gauzak desitxuratuz, «600»arekin igandea pasatzera «mendira» joaten direnek) bezala, bakea eta irribertasuna ikusten du Leturiak han, hots, baseritar batek sentitzen ez dituen (ezin sentitu dituen) gauzak (6).

1.1.4. Taxuketaren aldetik, nobelak zati ongi boro-bilduak ditu. Adibidez, Leturia Mirenez maitemintzen den prozesoa, ekilibrio ondo lortu bat nabari daiteke: «Udalen» parteko bigarren zatian neskatx bat azaltzen da:

«Ori idazten ari nintzala, aurreko iturrira alderatu da neskatx bat. Uraren ispillu igi-korrera begira egondu da lipar batez; eta bere burua, ala urmaeleko ondo arritsua ikusten ote zuen, ezin esan dezaket nik, ametsetan bezelakoa bai-zuen begirada...»

(6) Gerra aurreko euskal-nobeletan agertzen diren baserriaren eta giro nekazariaren deskribizioak ere ez dira baserritarrek eginak, noski. Nobela hauetan ere giro nekazariaren «interpretazio» bat aurkitzen dugu. Baina interpretazio hau egiten dutenak, nahiz ez diren baserritar, ez dira mentalitate urbano nabari bat duten gizakiak: «kaletarrak» dira eta hitz honek duen anbiguetate guztia aurki daiteke haiengan eta haien obran. Alde honetatik, bereziki interesgarria izango litzake euskal-nobelagintzan azaltzen den giro nekazariaren azterketa sakon bat.

*Orrean zegoela, zakur aundi sendorra on-
doratu zaio zaunkaka, bere zakurra nunbait,
arri koskor bat botatzeko eskean. Ametsai
bet-betan utzi neskak, lilluragunetik asma-
mena kendu, ta zakur ederrarekin joan da.
Neri ez galerazteko egin dio kiñua, ta iturri-
tik joaterakoan barkatzeko eskatu dit begi-
radaz. Ez da arritzekoa: gazte bat parkean
idazten ez da askotan ikusi oi; ta berak ere
alatsu uste zuen noski.*

*Eta bakarrik utzi nau berriz, leen bezela,
atzo bezela, zugaitzak eta txoriak nere lagun
bakarrak ditudala.*

*Itzali egin da eguzkia odei-tartean...»
(29-30. o.).*

Neskatxaren deskribizioa nahiko «normala» da, ez da nabarmentzen narrazioaren harian, neskatxa Leturiaren sentimenduetan nabarmentzen ez den bezala: neskatxa hori «neskatxa bat» da, ez besterik, oraindik, protagonistarentzat. Horrela, Leturia ez da Mirenez gehiago arduratzen hurrengo egunean berriro parkean azaltzen den arte:

*«Onelako gogoetan ari nintzalarik, zakur
aundi bat igaro zait ondotik. Lengo egunekoa
ez ote?»*

Alde guztietara begiratu dut, eta... berbera. Neskaxa Zerubide'tik nolatan zebillen ez nekien, eta orain ere ezin igarri. Alako eguraldi txarra izanagatik, andik zijoan ura, or zintzoa lagun, bidexka bustietan barrena; eguraldiaren txarraz kasorik batere egin gabe.

Aren ondotik igarotzerakoan kezkatan ibilli naiz, kezka farregarrian alegia: agurtu bear nuen? Edo-ta, ez dut pentsatzeko beta luzerik izan, eta «agur» esan diot ia oartu gabe.

Lotsatua gelditu da nunbait neska, urratsak arindu dituela bistan bai-zegoen.

Zer egiten ote zuen berak? Piska bat kezkatu nau, egia esan. Polita iduritu zait oso polita. Ez dakit nola den ere; baña giro busti ta illun artan margo-lore bizia zen bera, ta gorri-zuri gozoa iñoiz ez dut sentittu gaur bezin garbi ta kilikagarri. Bildurtuta zebillelako bearbada, xamurra izan zait txoil aren begirada, ta guxtiz berria. Nik bezelako kezkabide ta katramillak al darabilzki ausaz Zerubide'ko neska orrek? Zertarako aratzen da bestela orrenbestetan eta bakarrik? Trixterik eta uts-miñez al dabil ura ere?

Neska andik lekaturik, joaten ikusi baidut, itsaso aldera abiatu naiz, talai aldera, ta orduntsu atertu du.» (33. o.)

Aurrerabidea nabaria da maila guztietan. Lehen pasarteak hemeretzi errenkada betetzen ditu nobelan, bigarrenak hogeitamar. Bestalde, bigarren pasarte honetan Leturia ez da deskribiziora mugatzen, ardura bat mostratzen duen neskatxarengana: polita dela ohartzen da eta zer egiten ote duen parkean galdetzen dio bere buruari. Zatia ez da «prefabrikatua» (7): zakurrak ateratzen du Leturia bere gogoetatik eta zakurraren bidez heltzen gara neskatxarengana. Pasarteko gainerako elementuak ere, hala nola agurrarena, ongi egokitzen dira egoerari, multzo harmoniko bat lortuz. Aurrerabideari jarraikiz, laugarren zatia osorik Mirenez ari da. Orain, Leturia «ez daki zenbat orduz» egon da parkean, «bera» ikusteko gogoia zuelako hain zuzen. Lagun batez baliatzen da neska ezagutzeko. Hemendik aurrera, nobela guztian Miren ez da Leturiaren gogotik urrunduko.

Hizkuntzaren mailan, inolako iraultzarik egin gabe, (alde honetatik Txillardegiren eta Arestiren

(7) Argi dago nobela batetan, definizioz, dena prefabrikatua dela. Adierazi nahi duguna zera da, autoreak ongi ezkutatu duela bere eskua, pasarteari eskatzen duen egiatasun itxura emanaz.

traiektoriak oso desberdinak izan dira), postura berri bat mostratzen zaigu. Txillardegik gauzak esan nahi zituen eta hori ezin egin zezakeen garai hartan nobelak erabiltzen zen euskara ofizialarekin. «Impresio», «espasmoak», «sentsazio», «autentiko», «in-autentiko (8) eta horrelako hitzak ez ziren euskal-nobelak erabiltzen zituenak.

1.1.5. Hauk izan ziren Txillardegiren lehen nobelak ekarri zuen eraberritzearen elementurik inportanteenak (9). Egia da lortu dituen frutuak ez direla denak maila gorenekoak izan, mamiaren mailan ez direla falta topikoak eta pentsamendu merkeak, eta espresioarenean ere, huts formal nabariak aurki daitezkeela. Baina orotara hartuta, Txillardegiren entsegua guztiz positiboa eta interesgarria izan zen, eta egin zen urtea gogoan hartzen badugu, dezisiboa euskal-nobelagintzaren gerorako. Zeren literatur-obraren kritikan gauza bat dago ezin ahaz daitekeena: denbora. Literatur-lan oro denbora batetan ematen da, denborak markatzen du eta era berean denbora markatzen du. Ezin da denbora horretatik at aztertu. Behar bada, bere garaiari, bere garaiko be-

(8) Alde batetara uzten ditugu «hipotesis», «hipnosis» eta horrelako hitzak, beste maila batetakoak baitira.

(9) Beste zenbait aurrerago aztertuko dira, Txillardegiren beste bi nobelak estudiantzean.

harkizunei erantzun bat ematea da literatur-obra baten betekizunik nagusiena. Hau izan zen, beharbada, «Leturia-ren egunkari eskutua»ren baliorik handiena: 1957an agertu zela.

Baina Txillardegiren lehen nobela honek ez zuen izan espero zitekeen arrakasta. Esan daiteke lehenago aipatu dugun idazleen maila alde batetara utzirik, ez zela ia irakurri. Hau esplikatzeko azaleko arrazoi bat eman daiteke: argitaratu zenean, inork ez daki zergatik, 300en bat ale besterik ez ziren zabaldu. Gainerakoak etxe inprimatzailearen ganbaran geratu ziren, 1969an, ezorduan, zabaldu ziren arte. Baina, agian, bada arrazoi sakonagorik: ohizko euskal-irakurlekoa ez zegoen, beharbada, bakan batzuek ezik, holako obra batetarako prest, eta irakurle go berria ez zen tenore hartan oraindik osatu. Autoreak (hobeki, Leturiaren paperen «biltzaileak») berak esaten digu zein irakurle-motari zuzentzen den, «uda» zatian dioenean:

«Amaika dira au probatzeko [barne-egunkarien moda] aipa genitzazkenak; eta, agiritzat, irakurleak ezagutzen dituen (10) bi gogoraziko dizkiogu: Kafka ta Amiel.» (74. o.)

Hau izan zen bere «errua», edo, hobeki, ga-

(10) Azpimarka gurea da.

raiko euskal irakurlegoaren hutsa, zeren garai hartan Kafka edo Amiel ezagutzen zituztenak ez baitziren, ez, gure artean holako nobela baten arrakasta seguratzeko nahikoak.

1.2.1. «Peru Leartu'koa», Txillardegiaren bigarren nobela, 1960ean argitara etorri zen, lehena baino hiru urte geroago. «Domingo Sartre» izenarekin argitatu zen 1958an. Saria Erkiagaren «Arakhar Zaldunak» irabazi zuen; «Peru Leartu'koa»-ri aipatzen baitzuten irabazlea.

Txillardegiaren bigarren nobela hau lehena baino erdi bat luzeago bada ere, bi nobelak gaitza zeko dituzte amankomunean. Biak lehen pertsonan idatzitakoak dira; hain zuzen, gaur arte lehen pertsonan idatzi diren euskal nobela bakarrak. Bestalde, «Leartu'koa» ez duenik ezkotuzko euskal nobelagintza eta bere elementuak «Peru Leartu'koa»-n aurki dezituzke berriro. Hori dela, aurrez aurre hitzatu eta aztertuak hartan berain ugariak eta zabalagoak dira horietan: Berpiso (24 orrialde).

1.2. PERU LEARTZA'KO

1.2.1. «Peru Leartza'ko», Txillardegiren bigarren nobela, 1960.ean argitara zen, lehena baino hiru urte geroago. «Domingo Agirre» sarira presentatua izan zen 1958.ean. Saria Erkiagaren «Araibar Zalduna»k irabazi zuen, «Peru Leartza'ko»ari aipu bat ematen zitzaiola.

Txillardegiren bigarren nobela hau lehena baino erdi bat luzeagoa bada ere, bi nobelok gauza asko dituzte amankomunean. Biak lehen pertsonan idatziak daude: hauk dira, hain zuzen, gaur arte lehen pertsonan idatzi diren euskal nobela bakarrak. Bestalde, «Leturia-ren egunkari ezkutua»k euskal-nobelagintzara ekarri zituen elementuak «Peru Leartza'ko»n aurki daitezke berriro. Horrela, erreferentzi literario eta artistikoak hartan bezain ugariak eta gehiegizkoak dira honetan: Bergson (24. orrialdea);

Unamuno (26. o.); Gide, Hamlet (27. o.); «Thérèse Desqueyroux» (46. o.); Camusen «Atzerritarra», Gideren «Janari Berriak», «Thérèse Desqueyroux»i buruz gomentario bat (47. o.); Nagasaren «Milindapanha», Gide, Camus (48. o.); Graham Greene (57. o.); «Figaro Littéraire» (60. o.); Teilhard de Chardin (70. o.); «Platero y yo» (78. o.); Gide (94. o.); Gide berriro (97. o.); Sisleyren kuadroak (112. o.); Sisley berriro (139. o.); Nietzsche (139. o.); «Samyutta-Nikâya», «Milinda Pânha», «Visuddi Magga», «Dhammapada», «Upanishads» eta beste holako asko, Gide, Camus, Huxley, Malraux, Moravia «eta abar» (145. o.).

Giro urbano baten adierazgarri formalak, «Leturia-ren egunkari ezkutua»koak baino nabarmenagoak dira: ofizina, «guatekeak»: «fox» eta «samba»rekin, «Cabiriaren gauak» pelikula, kabaretak («Baiao-Dancing», «Hollywood», «Soloarte», «Maitetxe» eta abar), Rosa Duclair eta Rita Smith delako kantariak, sasi-manpiresak (*sic*), whisky eta koktelak.

«Peru Leartza'ko» ere nobela «mamitsu» bat da. Baina «Leturiaren egunkari ezkutua»ri aurkitzen genizkion akatsak hontan zeharo areagotuta aurkitzen dira. Nobelaren hitzaurrean A.-k dioenez:

*«... igarokortasunaren oiñazeak erdibitzen du
Leartzaren biotza.*

Lanegin bearra sasi-kezka bat da: bereala ikasten du Leartza'k.

Dana dijoa, dana iraungintzen da, dana ahaztutzen da; dana, abatik, alperrik da. Danak dakarki gerora tristura eta dolorea. Orra or Leartza'ren irteera eta benetako kezka. Orra or liburuaren kakoa.

Sustraiezko sentimentu orri, beste batzuk erasten zaizkio gero; eta au batez ere: gure nortasuna, gure «nitasuna», gure «ni» au, egiazkoa al da? Ez ote gera amets bildur-garri baten jopu?»

Ez dakigu nor ezkututzen den «A.» horren atzean (ez ginake harrituko Txillardegi bera, zuzenki ala zeharka, balitz), baina uste dugunez, nobelan gauzak konplikatukoak dira. Eta hauzi hau erabakitzeke obra da aztertu behar dena. Zeren literatur-kritika ezin da arduratu egileak egin nahi zuenaz, baizik egiatan egin duenaz, obran lortu duenaz. Autoreak edo bestek eman dezakeen pistek eta argitasunek azterbide-balio bat dute soilik, ez dute besterik obran egiaztatzen ez diren bitartean, Orobat esan daiteke hitzaurre bertan ematen zaizkigun justifikazioez:

*«Aieru eta uste auek txit zabaldurik dau-
de (...)*

Leartza-ren tentazioa guztiz egiazkoa da, gaiñerakoan.

Aita Taysmann jesuitak, etsistentzialismoaren eta budismoaren arteko gora-beherak xeheatasunez aztertu ondoren, au dio: Joera bizia dago Europa'n budismoaren alde. Eta "ziorik sakonena auxe da: antz arrigarria dutela Buda'ren pentsakeraren joerak eta gaur gure erresumak astintzen dituzten pentsakera batzuk. Etsistentzialismo batzuk eta budismoak dituzten antzak ain dira aundiak, ezen batarekiko sentitzen dan atseginak bestera eramaten baitu".»

Guzti hau egia dateke, baina era honetako arrazoiek eta argudioek ez dute zer-ikusirik nobelarekin, eta, noski, ezin dute nobela bat justifikatu. Nobela baten justifikazioa, nobela bezala, obran bertan egon daiteke soilik.

1.2.2. «Peru Leartza'ko»k, estrukturaren aldetik, ez du taxuketa ongi finkatu bat. Egilearen hirugarren nobelan gertatzen denaren antzeko zerbait gertatzen da ere honetan (1). Nobela Gandhiren aipu sintomatiko batez hasten da:

(1) Aurrerago ikusiko dugunez, «Elsa Scheelen»en barrenean (Jose Azurmendik, publikatu ez den lan batean, lehenik ikusi duen bezala) gutienez bi «nobela» gautzen dira.

«Ezin diteke esan makiñak egiten ez genekienik; baiña gure asabak bazekiten arreta orrelako eginkizunetan jarri ezker, jopu biurtuko giñala, eta Moralaren sena arras galduko genuela. Orrengatik, eta luzaroan go-goeta eginda gero, geure eskuen eta geure oiñen bidez egin ditezkean gauzak egitea erabaki zuten. Eta ez besterik.» (V o.)

Hau irakurri ondoren, badirudi makinismoaren aurkako obra baten aurrean gaudela. Hitzaurrearen zati batek ere horrelako zerbait adierazi nahi digu:

«Makinismoaren atsekabea eta iguiña, berrix, oso edatua dago gure artean. Gandhi, orregatik, beste bidearen aintzindari agertzen da; eta aintzindari aparta eta paregabea dan ezker, askok senti dute sorkalderako deia.» (X o.)

Baina nobelaren lehen kapituloan beste problematika bat (azalean antzekoa baina sakonean oso desberdina) aurkitzen dugu: bere lana gustatzen ez zaion ofizalista batena. Ordea, arrazoiak maila honetakoak dira: Olejuaz (nagusi-ordezko topiko batez) sentitzen duen iguina, dirurik-eza... Horrela, ofiziatik ateratzean, hau da bururatzen zaiona:

«... Kontua eska (nolako atsegiña, Jainkoa) eta ara sekulan ez itzul; Zuntzarri'tik Ameriketa'ra joan; lan berri bat Zuntzarri'n bertan arki, eta Olejuari utz...» (4-5. o.)

Dirudienez, ez du lanaren kontra ezer. Ondoa datorren «guateke»an, «nolabait jolastutze arren, gauza arrigarriak» (6. o.) kontatzen hasten da, itxurei buruz batez ere. Ondorengo afarian Jainkoari eta fedeari buruz. Berriro, Monique dela eta, Olejuari buruz maila pertsonalean ari da. Gero, bizi zen tokiaz «Naiago nuen edozein gauza, zulo illun artan sartu baño» (17. o.). Lanari buruz ondoren:

«... Badator berriz ere eguneroko zurrunbilloa: jaiki, lanera, bazkaldu, lanera, gaua eta berriz ere dana. Beti bat. Goizean esnatu, eta arratsaldeko zazpitan gogoa; egun guzian bizi ezbaña irauñ eta itxoegin. Eta zazpitan, berriz, bereala aspertu, zer egin jakin gabe askotan. Eta bereala gaua; eta afaldu bearra, eta abar. Eta berdin ere biaramunean. Bein eta berriz eta milla bider berdin. Astean bein atsedenditxo bat: igandekoa. Segundu motz bat; eta mende bat gero Olejua eramaten, paperak kopiatzen, txatxukeriak entzuten...» (21. o.)

Aurrera jarraituz, Xabierrekin hizketaldia,

beste zenbait gauzaren artean, bizitzaren zentzuaz. Marinelaren pasarte, klaustrofobiaz eta haren ondorioaz. Hemen ere lanaren gaia azaltzen da, baina alde patolojiko batetatik ikusita, erotasunaren problema jeneralarekin bukatzeko. Berrero Olejuarekin istiluak, maila pertsonalean orain ere, sakonago jo gabe. Lanetik botatzen dutenean «libre negok» (42. o.) esaten dio Xabierri. Beste lan batetan hasten da «Beste erremediorik ez zegoen» (52. o.), lan hau ere ofizina batetan.

Tenore honetan, sortaldeko erlijioak ezagutzen ditu. Lanaren problematika bizitze-mailan planteatzen jarraitzen da:

«... Lanetik oera, eta oetik lanera; besterik deus ez.

Bizirik iraun arren, ni enintzan bizi. Illik nintzan eta neronek enekien.» (56. o.)

Ondoren datorren hizketaldia Xabierrekin, heriotzari eta heriotz-ondoari buruz da. Bat-batean eta besterik gabe loteria tokatzen zaio. Lana uzten du. Negozio batetan sartzen da, ia lanik egin gabe bizitzera uzten diona. Indiako erlijioez irakurtzen du eta «oreopitheko»az arduratzen da. Xabier hiltzen da: «Bapatean utsa iruditu zitzaidan nere sasi-

-pake eroso; Allande Luzarraga ero bat, eta ni neu ere, zer? Utsa.» (81. o.). Lanean diru asko irabazten du, baina «zertarako dirua?» (88. o.). Allande bere sozioaren kritika:

«... Zertarako bizi zan? Erantzun errexa: dirua irabazteko. Eta dirua, zertarako? Ori bai txatxukeria: dirua dagoen gauzarik ajolatsue-na dalako. Dirua da absolutoa, ots dirua da guzien kakoa, asiera eta amaia.» (91. o.)

Allanderekin haustea erabakitzen du: «Gure ondasunen jopu egiazkoak giñan.» (92. o.). Hauste hau nobelaren bi herenak pasa ondoren gertatzen da, Allandarekin duen elkarrizketa luze baten ondoren (pasarte honetan galaxien fotoez ere hitzegiten da).

Gehiago lanik ez egitea erabakitzen du. Orduan (eta ez «bereal» A.-k dioen bezala) ematen zaigu aditzera hitzaurregilearen iritziz nobelaren giltza:

«... Orduan ikusi nuen garbi lehenengoz: etorkizunaz ez dakigu tutik, eta unea ustiatu bear da goitik behera: «aldi joana ezta itzultzen», eta galdutako era ere ez. Laneginbearra, berriz, ez da sasi-eginkizun bat besterik: Allande topatu arte enekien au.

Eta, dirua? Dirua bear da ta... Lanegin bearra zigor bat da; baña ez lanagatik bera-gatik, geure burua eta geure egiazko prolema izkututzen digulako baizik. Eta, zein da au ba? Onatx emen: denboraren igesa.

Eta enuen geiago pentsatu: denbora arin dijoa, eta etorkizuna gaitza da berez. Era-bakitzeko etzan besterik bear.

Eta orrela bukatu zan nere lan-aldia.»
(98. o.)

Orduan, «kasualitatez», Monique aurkitzen du, denboraren igarokortasunaren lekuko. Ondoren, burusoilaren pasartea, gizonaren animaliatasunaz. Amets bat, gazteriako oroitzapenak, mozkor-aldiak, etsipena, marinelaren heriotzea, gaxotasun bat... 125. orrian sonanbuloa dela konturatzen da eta, ondorioz, bere nortasunaren bitasunaz. Erotzen hasten da, amets bitxiak ugaritzen zaizkio, bere «oreopithe-koaz» baizik ez du pentsatzen. Zituen liburuak erre ondoren, suizidio-ahalegin alfer batez bukatzen da nobela: «Burutik egiña dago. Eraman zazute emen-dik» (152. o.).

Nobelaren gai-azterketan hainbat hedatu ba-gara, bidenabar obrak agertzen duen gai-ugaritasuna nolabait ikus-arazteko izan da. Alde honetatik, «Pe-

ru Leartza'ko» «guztiaren summa» baten antzeko zerbait gertatzen da: ez da ia gairik nobela labur honetan ikutzen edo aipatzen ez denik. Eta kondizio hauetan zaila da, oso zaila, nobela bat taxuz burutzea. Eta zailtasun hau areagotu egiten da autorea Txillardegi denean. Zeren «Peru Leartza'ko»n jabetzen baikara, hain zuzen, Txillardegik nobelista bezala nabaritzen dituen mugez eta limitazioez.

1.2.3. «Peru Leartza'ko»ko pertsonaiak topikoak dira, ia batere matizaziorik gabekoak. Olejuari, haserretzen denean, «sua dario begietatik» (2. o.); halaber, Barrota «su eta gar »(67. o.) jartzen da. Allandek, nagusi diru-zale batek esan behar dituen topikoak esaten ditu: ez bat gehiago eta ezta bat gutiago ere. Berdin esan daiteke beste pertsonaiez. Txillardegiren pertsonaiak, bigarren nobela honetan ikusten dugu klarki, ez dira egiazko gizakiak, baizik autoreak, nahi duen erara, nobelari sor zaion begirunea errespetatu gabe erabiltzen dituen gauzatasunik gabeko marionetak. Tesis aurreburutu bat desarroiltzeko bide artistiko bezala ikusten du Txillardegik nobela. Ikusmolde oker honen ondorioz, Xabier, Monique, Olejua, Barrota, Allande eta Peru bera ez dira tesis hori gauzatzeko behar den argumentuaren eta egoeren sostenguak besterik. Hau da, aurrena, ez egilearen buruan bakarrik, baizik nobe-

lan bertan ere, tesisa da: Pertsonaiak autonomiarik gabeko, «gorputz»ik gabeko iratxoak dira, autorearen borondatearen menpean nabarmenki daudenak. Pertsonaien pertsonatasuna ez da nobelagintzaren ondorioa, baizik aurretik erabakita dagoen zerbait. Ez gaituzte pertsonaiek tematikara zuzentzen, alde-rantziz baizik. Honekin, irakurle ohartu tesis batzuek «inposetzen» ari zaizkiola ohartzen da. Autoreak ez du hogeigarren mendeko nobela on batek eskatzen duen «objetibotasuna» lortzen (2). Hitz batez, esan dezakegu hemeretzigarren mendean erabiltzen zen nobelatze-era baten aurrean gaudela, gaur egun guztiz desegoki eta desbidetuki gertatzen den era baten aurrean.

Objetibotasun faltak dakarren astuntasuna nolabait gainditzeko, hots, irakurlearengan interesa sortzeko, espresionista deituko dugun desitxuratze batez baliatzen da autoreak. Horrela esplikatu daiteke, adibidez, admirazio-zeinu hirukoitzen ugaritasun ikaragarria (narrazioaren mailako huts bat ortografiaren mailan konpondu nahi balitz bezala). Teknika

(2) «Objetibotasun» hitza komatxo artean jartzen dugu konturatzen garelako nobela bat, nobela izateagatik beragatik, ezin daitekeela objetiboa izan. Adierazi nahi duguna itxura-problema bat da; egia-itxura bat, objetibotasun-itxura bat lortu behar da irakurlearen aurrean, nobela, nobela bezala, efikaza izango bada. Hori, nobelaren mundua narrazioaren estrukturatik bertatik sortzen denean gertatzen da soilik.

hau, askotan, mamiaren aldetik oso ahulak eta aza-
lezkoak diren hizketaldiak «salbatzeko» erabil-
tzen da:

«—Zergatik ez dute illak piztutzean ezer
esaten beste mundukoaz?

—Baña au ez duk il. Ortaz, etzegok zer
miretsirik.

—Noiz asten da, abatik, eriotza? Noiz
il da gizona?

—Etzekiat. Baña miriku ori, segur egon
adi, ez duk il. Etzekiagu nola egon dan, baña
bere arimak ez dik gorputza utzi.

—Baliteke— nik, eztenka gaiztoan.

—Eskierki— berak—. Biotza gelditzea ez
duk aski, nik uste.

—Ilda gero utsera ba ginjoaz, ez genikek
itzegingo. Ez al duk uste?— galdetu nion
kezkatu naiean.

—Ala duk— berak.

—Eta biotza gelditu zaienak ez ditek itze-
giten...

Kezkatu egin zan. Bistan zan.

Eta nik, biotza arintzen zitzaidala, eta amorruez beterik bezela orduan:

—Eta Lazaro'k ere ez!!!

Izutu egin zan Xabier.» (60-61. o.)

Helburu bera dukete nobelan agertzen diren era guztietako gehiegikeriek eta nabarmenkeriek, adibidez:

«—Nola zer?— ekiten zion Olejua'k nik baño ere goragotik— Nola zer?— lepoko zanañak lehertzeko zorian aundituta—. Norentzat naukak, txoro orrek? Gaur bereon jakingo duk dana, alajainkoa! Baña bitarte ontan, nik agintzen diat emen. Etxe ontatik atera artean neu nauk burua, neu!!!...

Eta "neu" esaten zuala, sekulako ukaldia eman nere maiaren gaiñean, eta autsi egin zuen. Zulo bat agertu zan...» (3. o.)

«—Adi zak— nik berari—, emendik aurrera egin zak ire ama eure oakide, baña nitzaz ez duk parrerik egingo!!!

Eta, esate berean, sekulako ukaldia eman nion sudurrean, atzeraka lurrera botiaz.

Eldu egin ninduten. Odoletan zan Olejua. Odola ikusita gehiago sutu nintzan, eta kolpe batez elduta ninduten bi lagunak jaurtiki nituen atzera, eta alki bat artu nuen bi besoez. Jotzera ninjoalarik berriz lotu ninduten lau edo bosten artean.» (36. o.)

Autorearen beste mugatasun bat, pasarte askok nobelari hartzen duten funtzio adierazlean datza. Txillardegik, pertsonaieiz gainera, pasarte asko zuenki tesisaren hari frogatzeko ezartzen ditu, hots, tesisaren boterea gertaeretara ere hedatzen da. Horrela, nobelaren hariari atxikiz, ez dakigu ongi nola ikusten duen Leartzak egiazko problema denboraren ihesa (98. o.) dela. Honen ondoren datorren zatian, «kasualitatez» (Frantzian bizi da eta gutienez duela bost urte ez dute elkar ikusi) Monique aurkitzen du Peruk Aduaga-Parkean. Halabeharrez, topaketa honetatik Peruk ateratzen duen ondorioa denboraren ihesaren froga bat da:

«... baña... etzan ura, etzan "nere" Monique. Au beste bat zan, denborak bilakatu zuena ain zuzen. Barne-zirrara sentittu nuen. Zenbat urte pasa zan alkarrekin ibilli giñanetik? Bost? Zortzi? Eneki. Enuen jakin nai. Etzidan berak ezer aipatu gure bolada artaz; baña atsegiña biok artzen genuela uste dut. Atsekabe atsegiña zan, gozo mingotsa; den-

bora pasea zalako tristura unkigarria. Ni enintzan "bere" Peru, ezta bera ere "nere" Monique; aiek biak illik ziran. Eta gure miña uraxe zan: betirako il giñalako segurantziari zegokiona.» (99. o.)

Zenbaitetan, nobelaren azken-aldean batez ere, pasarte osoa zatiaren amaieran ateratzen den ondorio ideologikoak (hitzaren zentzurik zabalenean) justifikatzen du soilik. Bestela ez luke sentidurik izango. Hau nabarmenenik eta argienik buru-soilaren pasartean (103-104. o.) ikus daiteke. Aurreko zatian denboratasunaz mintzatu ondoren, honela hasten da: «Burusoil batekin itz egin nuen» eta buru-soilaren deskribizioa egin ondoren horrela bukatzen da lehen parrafoa: «... kiñu bat atera zitzaidan ziplo: alimalia soil baten burua nekusen». Zenbait gogoeta (bere bizitzeko oroitzapenez: buru-soila ez da ezertarako azaltzen) aditzera eman ondoren, horrela amaitzen du:

«—Eta alako zerbait zen ura ere: etzan illea, ille asko baizik, eta kontagarri; etzegoen alegia, adatsik edo mototsik: ille edo billo aleak ziran.

Alimalia soilla zan gizona, ortaz, ille asko ez baña gutxi duena. Eta bere ataletan arpegia eta kaskoa ditu iguingarrienak.

Zergatik ez dugu beraz bizarra aunditzera uzten? Obe genuke, gure alimali-larrutasuna pittin bat bederen estal zedin.» (103-104. o.)

Beste kasutan bezala, ondorioaren pobrezia intelektualak areagotu egiten du pasartearen efekto okerra.

1.2.4. Limitazio hauekin eta «Elsa Scheelen» aztertzean (han nabarmenago agertzen baitira) ikusiko ditugun beste zenbaitekin, oso zaila zen Txillardegirentzat «Peru Leartza'ko»ren tankerako nobela bat taxuz burutzea. Horrela, ezin esan daiteke donostiar nobelariaren bigarren obra hau nobela lortu bat denik. «Leturiaren egunkari ezkutua»rekin konparatzen badugu, diferentzia nabaria da. Lehen nobela hobeki egokitzen zen autoreak nobelari bezala erakusten zituen dohain eta limitazioei. Haiek hobeki probetxatzen zituen eta hauek (problematika homojeneoago batez baliaturik eta egunkari forma erabiliaz) ez ziren hain nabariki mostratzen. Bigarren nobelan alderantziz gertatzen da. Txillardegik ez du asmatu bere bertute nobelistikoak zentzuz ager-arazten eta probetxatzen, eta bestalde mamiaren ugaritasun itxuragabeak eta egoeren eta gai erabilien bateratasun faltak gainezka egin dio egileari, gairitu egin du momento askotan, gehiegitan gauza onerako. Honen

ondorioz, irakurle ohartuak ez du, batez ere azken partean, nobelaren haria atxikitzen, ez du Peruren problematika seriotan hartzen, ia farregarri iruditzen zaio. Desitxuratuegia, arrotzegia, hitz batez, faltsoa gertatzen zaiolako.

Zentzu hau dute gure ustez J. S. Martinek «Nobelarietzako oiñarri batzuek» lanean dioena: «bera bizi ezten prolemak artu izan ditu, ta ori oso gaitza da ongi erabiltzeko» (3). Hots, S. Martinen hitzok horrela hartu nahi ditugu (eta uste dugu interpretazio hau zilegizkoa dela): «Peru Leartza'ko» obra nobela-mailan ikusten badugu, badirudi egileak ez duela lortu nobela batek eskatzen duen egiantzekotasuna, eta bizi ez dituen problemez ari dela ematen du.

Guzti honek ez du esan nahi Txillardegiren bigarren nobela honek ez duela ezer onik. Baina

(3) «Jakin», 17, 32. o. J. S. Martinek berak dioenez, hitz hauek «Peru Leartza'ko»ri buruz pentsatu ziren. Ohar hori, «Egunero hasten delako» nobelaren hitzaurrearen seigarren orrialdean I. Sarasolak zioenari («Uste dut bizi dituela Txillardegik bere nobelatako prolema eta egoera gehienak, eta egin dituen extrapolazioak legezkoak direla») erantzun bat da. Eta hemen aztertu dena ikusirik badirudi arrazoa San Martinekin dagoela «Peru Leartza'ko»ri dagoikonez. Dena dela, ikusi dugunez, problema ez dago hor, baizik gure artean P. Urkizuk «Literatura eta Kritika» liburuaren 148. orrialdean dioen bezala, «idazleak proposatu dituen egiturak ongi iritxi dituen ala ez aztertzean».

alde posotiboak, han-hemen aurki daitezkeen zenbait xehetasun eta diztira laburretara mugatzen dira batez ere. Bestalde, «Leturia-ren egunkari ezkutua» legetzen zuten elementuetatik bat (beharbada garrantzitsuena) falta da hemen: berritasuna. «Peru Lertz'a'ko» argitaratu zenean, asimililatuak zituen eta bereganatuak euskal-nobelagintzak «Leturia-ren egunkari ezkutua»k ekarri zizkion molde eta giro berriak. Beste pauso bat eman behar zen aurrera (kalitate-maila igoko ez bazen). Baina ez zen, ikusten dugunez, horrelakorik gertatu.

1.3. ELSA SCHEELLEN

1.3.1. «Elsa Scheelen», 1968. urteko «Domingo Agirre» saria, Txillardegik orain arte nobela-arloan egin duen azken saioa, aurrekoak baino askozaz an-biziosoagoa da. 1969an argitaratua, hots, «Peru Leartza'ko» baino bederatzi urte geroago, ez da, aurreko biak bezala, nobela labur bat. Nobela luze bat izan gabe, euskal-nobela luzeenetakoa da hirugarren hau, bigarrena baino bi aldiz eta lehena baino hiru aldiz zabalagoa.

Bestalde, agiri dago autoreak «beste zerbait» egin nahi zuela, zerbait serioagoa, landuagoa, «egiazko nobela» bat hain zuzen. Obra honetan eman nahi zuela nobelagile bezala orduan eman zezakeen guztia.

Lortu duena hor dago, letra txikiko 248 orri-alde horietan. Aurrerapena nabaria da, zenbait al-

deri dagokionez batez ere. Lehenik, kritikak aho batez aitortu duenez, hizkuntza-mailan (1). Eta hizkuntzaren aurrerabidea, haren alderik garrantzitsue-
nean gertatzen da: «Elsa Scheelen»en, euskara ahal-
tsu eta errekurtoz bete bat aurki daiteke, bizitze
modernoan adierazten aise dabilena, bortxa eta behaz-
toparen ia seinalerik gabe, naturaltasun nabari batez.
Ez dugu hemen Erkiagagan aurkitzen dugun hizkun-
tza-problema (2), ezta ere «Peru Leartza'ko»n bertan
ikus daitezkeen era honetako ezintasun-aitorketak:

*«... Bazirudien, alde batetik, pelikula nagi-
tan ikusten nuela Xabier, "Kamara lentan"
alegia.» (83. o.) (3)*

Pausoa handia da, alde honetatik azken eus-
kal-nobelagintzak eman duen handienetakoa. Hor
dago, adibidez, lekuko, XII kapituluaren erdialdean

(1) Ikus, adibidez, P. Urkizu, op.cit. 149. o. Gainera-
koan artikulua hau oso diskutigarria iruditzen zaigu,
iluna eta batez ere nahastua delako, eta «Elsa Scheelen»
ez baino areago Txillardegiren nobelagintzaz oso batez
bezala ari delako, obrak berezi gabe, alderdiak matizatu
gabe, eta finean, esaten duena frogatu gabe.

(2) Ikus J. S. Martín «Nobelariantzako oinarri ba-
tzuek» («Jakin», 17, 32. o.). Halaber euskal-prosaren pro-
blemaz I. Sarasola, «Egunero hasten delako»ren hitzau-
rrean 4-5. o. eta «Euskal literaturaren historia»n 74-77. o.

(3) Dena dela, badira «Elsa Scheelen»en ere zenbait
gauza ongi lortu gabeak: adibidez, presentazio-formula:
«Atseginez ezagutu» (50. o.) motz geratzen da.

ematen den entseiua, burgesia dekadentearen hizketamoldeaz, euskaraz egiten den lehena.

1.3.2. Beste mailatan frutuak ez dira hain argiak. Formari dagokionez «Elsa Scheelen» nobela tradizional bat da. Hau ikusteko aski da narradoreak hartzen duen joera aztertzea. Nobela honetako narradorea (hirugarren pertsonan ari dena eta ez lehenengoan, aurreko bietan gertatzen den bezala) narradore *orojakile* deitzen dena da. Narradore orojakile honek, jainko batek bezala, xehetasun guztiak ezagutzen ditu, ezkutu guztiak agertzen ditu, pertsonaien baitara sartzen da, badaki zer egiten eta zer pentsatzen duten. Era honetako nobelatan (XX. mendea arte egin diren guztiak) irakurlea espektadore pasibo bat da, ez du bere aldetik ezer egiterik, esanik eta adierazirik ematen baitzaio guztia.

«Elsa Scheelen»go narradorea, jeneralean, era honetakoa da. Pertsonaiek ez dute sekreturik berarentzat. Are gehiago, pertsonaiak baino gehiago daki memento askotan:

«... Baiña funtsean, eta Elsa ez zan huntaz ohartzan, ez zuen bere burua sendatu nahi, ez hau denen gainetik behintzat: Elsa'k zigortu egin nahi zuen Luc; ez ikusiaz eta ez kasorik egiteaz, Luc'engan pentsatzen zuen,

zauritzeko itxaropen izpi bat irazeki nahi zuen.» (38. o.)

«... Baiñan ez zan hau lana uztera bultzatzen zuen inportanteena: bihotzean min haundia harturik ere, bestek hartaratu zuen. Zergatik? Bere igaroari buruz guztiz, arras, osotara, nahi zuen ebaki, errotik hautsi eta erauzi.» (71. o.)

«... Elsa ohartzen ez bazan ere, Vanden Broeck'en hitz legunak eta zurikeriak behar zituen: jostaketan ibilli uste zuen, baiña beharra sakonagoa zan: Vanden Broeck'ek fidantza berpixtu zuen Elsa'rengan, eta hunek bihotzez eskertzen zion; eri egon danak ikustera heldu zaizkionak eskertzen dituen gisa.» (73-74. o.)

«... Ematean zetzan Elsa'ren sendimendua, ez jasotzean. Hoztu egin zala iruditu zitzaion; baiñan ez zan hoztu, egia esateko, emalle bihurtu baizik.» (128. o.)

«... Ba zegoen halere zerbait. Eta Pierre'k ez zekien, ez zuen uste, hobe.» (143. o.)

«Funtsean, egiazki, Elsa Pierre'ren arreba bizkia zan: biak hutsik, biak bidez naha-

siak, biak hotzak dardar. Baiñan ez zekiten.»
(195. o.)

Narradorearen botere hau zenbaitetan imajinagaitza gertatzen da:

«Oihenart naparrarekin gogoz esango zukean Meunier flamendarrak kinka hartan:

''Hiltzea gaitz da; gaitzago bana maite uken, eta ez maite izana''...»

(211. o.)

Bestalde, «Elsa Scheelen»go narradoreak nahi duena eta nahi duen eran kontatzen digu: (4)

«Hortik aurrera bero jarri zen alkarrizketa. Gutxi gora-behera danak bat zetozten puntu batean: Brusela hondatzen ari zan; eta kakoa hortantxe zegoen: alegia, flandetarrek barne, atzerritar gehiegi.» (98. o.)

«—Bederatziak hamar gutxi besterik ez! Eta ixiltasun bitxi hau halere... Igandea da, bai, baiñan...»

Eta hitz zantar bat erantsi zuen.» (114. o.)

(4) Argi dago narradoreak beti kontatzen digula nahi duena. Baina aipatuko ditugun bi zati hauetan irakurlea konturatu egiten da narradorearen jokaeraz: itxura-problema bat azpimarkatu nahi dugu hemen ere.

Beste zenbaitetan, irakurleak berez ikusi behar lukeena adierazten dio narradoreak:

«—Zer berri? —galdetu zion Vanden Broeck'ek "International School"etik irtetze-rakoan. —Gaur ez nago presaturik.

—Hara. Lanak amaitu?

—Dana azalduko dizut. Nabi duzu berriz

Ixelles'ko aintziren ondoko "Les Etangs" enera joatea?

Vanden Broeck ez zan makala bere ehize-lanean, eta emakume eder haren begietan ditzira berri bat antzeman zuen (77. o.)

«—Gabon Suzanne.

—Gabon. Nork esan dizu nere izena? Ez dut uste gaur baiña lehenago hemen ikusi zaitudanik.

—Kanpoko zuen aingeru zaindariak salatu dit.

—"Aingeru zaindaria" esan duzu? Hemen ez dago gutzaz kanpoko zaindaririk; eta aingerurik...

Emakumeen mordora begiratu zuen Suzanne'k, eta hau erantsi:

—Horra hor hemengo "aingeruak". Ez dut ezer ez asmatzen eta hanpatzen: "Tu es un ange" hitzak maiz entzun dituzte pareta hauek...

Hitz desegokiak esan zituela iruditu zitzaion Pierre'ri: zalantzarik gabe ez zan giro haietan "usatua", eta ezagun zan.» (219. o.)

«—Hemen nauzu, ba —erantzun zuen Pierre'k, oso herabe— lanera etorria hobe.

Piperrik gabeko esaera hau, motela, geza, ttattala, hutsa, eta nahi dan guzia iruditu zitzaion Pierre'ri.» (169. o.)

Pasarte hauetan narradoreak «ez zan makal bere ehize-lanean», «ezagun zan» edo «piperrik gabeko esaera hau» esaten digunean, badirudi irakurlea tontotzat hartzen duela, ez baita bere ustetan el-karrizketan ematen denaz ohartzeko gauza.

Noizean behin narradoreak bere iritzi pertsonalak ematen dizkigu, narradore baino zerbait gehiago bihurtzen delarik. Horrela,, Elsak Vietnamez ari den irratia itzaltzen duenean:

«... Ez, iñolaz ere, berri horiek mendrenik ere nazkatzen zutelako; edo gezurrezkoak iruidtzen zitzaizkiolako. Ez. Horrelakorik ez zitzaion burutik pasa ere. Ez zuen pentsatu, era berean, Viet Nam dala azken urte-
etako lotsa nagusia eta hilketarik ahalkegarriena.» (10. o.)

Argi dagoen bezala, Vietnameko gerraz ematen zaigun iritzia narradorearena da, ez Elsarena.

Zenbaitetan narradoreak bere jokaera orojakile hau baztertu egiten duela dirudi, batez ere galderen teknikaren bitartez. Adibidez:

«Zer zan hura? Eta, pakea zertarako? Eguraldi bikain hura zertarako? Igandeetako astia zertarako? Itsu-une labur hura gaindituta, hodei zabal, goibel eta bakar bat ikusi zuen [Elsak] berriz, zeru goia ia guztiz esaltzen zuelarik, bere zabalera nasaiean barrrena beti bat: txuriska, kolore-litsik gabea.» (113. o.)

Baina argi dago galderak ez direla narradorearenak, Elsarenak baizik: erantzuna ematen ez baizaigu ez da narradoreak ez dakielako, baizik nobelaren hariari ez dagokiolako.

1.3.3. Nobelatzeko era tradizionalaren beste bereizgarri bat «pentsamendu lojiko» deritzana da. Molde honetan, pertsonaien pentsamenduak lojikoki, lojika-ren hariak gidaturik desarroilatzen dira, kontzientziaren kontrol oso baten pean (5). Horrela:

«"Jendea aspertu egiten da —zion Elsa'k berekiko—. Ni neu ere aspertu egiten naiz; baiña Pâquerettes'era etorri arte ez nekien. Orduan Luc falta zitzaidan, haurrak falta zitzazkidan, gauza askoren gabea nabaitzen nuen. Gaur, aldiz, dana sobera zait, mundu osoa zait gehiegizko eta larregi"».

Eta aurrera ekin zion gogoetari:

«"Nere bakardadea, eta beste horien jokoak, Coca-Colak eta ekintzak; sasi ezkertarren erreboluzio-nahia eta kabaretak, mistika eta ordikeria, funtsean orobat, katramilla izukutu berberaren ondorio dira: denboraren igaroaren ito behar ixilla eta aitortu-eziña uko egiteko moduaz. Ez du gizadia denboraren ixuri etengabeak izutzen. Areago lazten gaitu denbora huts aspergarri hau bete behar hertsia. Denbora polikiegi igarotzen da:

(5) Beste pentsamendu-molde batzuk R. Saizarbitoriaren «Egunero hasten delako» aztertzean azalduko dira. Hobeki ikusiko da orduan, kontrastez, hemen adierazi nahi duguna.

horra kakoa. Nere bakardadea nabarmena da; besteena itxuretan diximulatua. Funtsean biak gauza bera'». (118. o.)

«—Ederra litzake, bai —zion Pierre Meunier'ek berekiko—; ederra izan zan benetan neretzat siñistu nuen artean... Baiña gaur fedea galdu dut... A. Martin'ek arrazoin guzia luke, egia balu! Federik ez dugu: xuxen ikusten du gure akatsen erroa. Ez dut nik federik, noski; baiña nere hamar lagun hauek ere ez. Ia iñork ez: horra hor egia... Zergatik ez, ordea? Kristau helburuak ez ote dira amets eder huts bat? Pablo'k garbi ikusi zuen hau orain dala hemeretzi mende: "iñoiz piztuko ez bagera, alperrikakoa da gure fedea". Piztuko ote gera, beraz? Nork siñisten du hortan egiazki?

Ipuñak! Gauza ageria da, nere ustez, heriotzarekin batera bukatzen dala gure bidaia egitekotsu hau. Buruz ikasi ditudan hitzak zaizkit egia...» (192. o.)

Ikus daitekeenez, kausa-ondorioz moldatutako pentsamendu-hari hau areago egokitzen zaio saiaera bati giza-pentsamendu espontaneoaren gauzatzeari baino.

1.3.4. Baina «Elsa Scheelen»en hutsik larrienak, beharbada, estructures-mailan aurkitzen dira. Badirudi egilearen asmoa emakume baten gora-beherez eta pertsonalitateaz aritzea zela. Hori ematen digute aditzera, besteak beste, obraren izenburuak berak eta eskaintzak. Baina nobelan ez daude gauzak hain argi, zeren, Jose Azurmendik ikusi zuen bezala, «Elsa Scheelen»en bi «nobelaren» aurrean gaude. Lehendabizikoak Elsa du protagonistatzat. Bigarrenak, hemezortzigarren kapituluaren inguruan hasten dena, Pierre Meunier apaiza.

Nobelaren lehen partea Elsas ari da eta mundu narratua Elsaren bitartez ematen du narradoreak aditzera. Jokaera hau oso gutitan baztertzen du: 21. orrialdearen bukaeran narradorea Lucen baitan sartzen da honen gogoetak zuzenki aditzera emateko. Orobat gertatzen da 72.ean De Rijke medikuarekin. Baina horrelakoak salbuespenak dira: beste pertsonaiak gehienetan Elsaren bitartez ikusten dira. Horrela, adibidez, Elsaren ama:

«... Bañan amak ezer esan ez bazion ere, zerbait somatu zuela gauza ageria zitzaion. Elsa'ri; eta geroztik bildur zan Mons'a agertzeko, eta ez zuen bihurtzeko kemenik.» (40. o.)

Nobela, Elsa eta haren senar Lucen arteko harremanak Elsaren aldetik adieraziz hasten da. Elsa,

bere senarrak enganatu egiten duela jabetzen da. Bi eta hiru kapituluetan «flash back» batez bien harremanen historia esplikatzen zaigu. Hurrengo kapituluetan matrimonioaren krisisa, haustearekin bukatzen dena, kontatzen da. Elsaren familia ezagutzen dugu ondoren. X eta XI kapituluak Jean Van den Broeckekin duen abentura batez ari dira. XII.a, Antoine Vanhammerekin duenaz. Ondoren, nobelaren ritmoa ahulduz doa eta narrazioa astunki aintzinatzen da. Elsa pertsonaia ez da aurreratzen, ez dugu progresorik, gertaera, egoera eta pentsamenduen akumulazio bat baizik. Ondorioz, irakurle ohartua Elsas asperetzen hasten da.

Baina Elsas ez da irakurlea bakarrik asperetzen: autorea bera ere aspertu egiten da, ez daki zer egin Elsas. Horregatik, XVIII. kapitulutik aurrera estruktura-aldaketa funtsezko bat gertatzen da: mundu narratua Pierreren bitartez ematen da eta, Elsa gabe, Pierre da aurrerantzian nobelaren egiazko protagonista. Ondorengo kapituluak Pierreren pertsonalitatearen desarroiloa gauzatzera dedikatzen dira, adiskide Jeanekin dituen elkarrizketen, apezgoaz dituen kezken, Elsarekin dituen gora-beheren, bere aitaren heriotzaren eta ondoren egiten duen erretiroaren adierazpenaren bitartez. Parte honetan narrazioa Elsaren bitartez ematen denean ere, Pierreren funtzioan egiten da, Pierre da, nobelaren amaiera arte, obraren sostengatzailea.

Bestalde, autoreak hobeki taxutu eta itxuratu du bigarren pertsonaia hau, borobilduagoa eta lortuagoa aurkitzen dugu. Autorea erosoago moldatu du apezgoa uztea erabakitzen duen gizon intelektualki eta bibentzialki hain deserrotu honen irudia gauzatzeko, problema azken finean sentimentalak dituen emakume hari gorputz ematen baino. Hau ongi nabarmentzen da nobelaren bukaeran: Pierreren «amairera» askozaz ere hunkigarriagoa gertatzen zaigu Elsa-ren heriotzea baino.

1.3.5. Gainerakoan, bi aurrekoetan aurkitzen genituen akatsak hirugarren honetan ere aurki dezazkegu. Hemen ere erreferentzi literario eta artistikoen numeroak betiko Txillardegiren nobela baten aurrean gaudela gogoratzen digu. Horrela, besteak beste, Baudelaireganik hartutako hemezortzi lerrotako aipua eta batez ere Pierrek, sintaxis-duda bat ere gabe, «buruz ikasi dituen hitzak», 24 lerro betetzen dituztenak.

Dialogoari dagokionez, aurrerabidea nabaria da zenbait mementotan. Bestalde, «Peru Leartza`ko»n hain bitxi gertatzen ziren admirazio-zeinu hirukoitzak, nobelaren azken orrialdeetan ezik, ia desagertu egiten dira. Baina, jeneralean, ez da doinu deklama-

torioa eta desarroilo diskurtsiboa gainditzen. Horrela, solasaldi askok teatrozkoak dirudite:

«—*Gabon, denoi —Elsa'k, mokanesa beti musuan.*

—*Gabon —bi aldiz entzun.*

Azalpen bat emateko beharra nabaitu zuen Elsa'k:

—*Barka zazute nere itxura hau. Ez pentsa, batez ere, agiri diran betazpi heze hauek tristurazko negarren seme diranik. Amorruak eragin dizkit malkoak, benetan. Ni baiño azkarragoa izan da bihotzaren ukoa; eta burubideari nagusitu zaizkio.» (131. o.)*

Obraren estiloa, bestalde, nahiko anarkikoa da. Adibidez, narradorea baztertuz narrazioa Elsaren egunkiaren bitartez aintzinatzen denean, nobelaren ritmoaren ahulezia nabariagoa egiten da, estilo-aldaketa ez-justifikatu honen ondorioz (6).

(6) Hain zuzen, egunkari honetan nobelaren giltza ematen zaigu. Orrialde horik aurrekoen resumen «argitzailea» gertatzen dira. Egileak, berriro, badirudi ez dela gaiaren haria atzemateko irakurlearen zorrotasunaz fidatzen.

Halaber, badira beste zenbait detaile, garrantzi xipi-koak, baina nobelari batek zaindu egin behar dituenak. Adibidez, nobelaren hasieran irratia frantzesez mintzo da (9. o.). Ondoren datozen Vietnami buruzko berriak

Txillardegiren hirugarren nobelaren balantzea egitea ez da gauza erraza eta, beharbada, oraingoz, taxuz egitekotan, ezina. Beste ingurune batetan (nobelagintza desarroilatu bat duen literatura batetan) erraza izango litzake era tradizionalako obren zenbait bertute eta akats gehienak dituen nobela bat juzgatzea. Ez, ordea, gure artean. Dena dela, handik bi hilabetetara argitarara zen beste nobela baten azterketak argi eman dezaiguke, besteak beste, puntu hau ere zuzenkiago ikusten.

euskaraz ematen ditu. Nobelaren bukaeran, berriz, irratia berriro Vietnami buruz ari denean, frantsesez ari da (203. o.).

2. NOBELA MODERNO BATETARANTZ: R. SAIZARBITORIAREN «EGUNERO HASTEN DELAKO».

2.1.1. «Egunero hasten delako», Ramon Saizarbitoriaren lehen nobela, Txillardegiren obrak bezala euskal-nobelaren texto-inguruan juzgatu behar da. Txillardegiren egintza aurreko egoerari buruzko erreakzio bat bezala ikusten genuen, aurreko nobelagintzaren baserritartasunaren, herstutasun ideologikoaren, mamiari buruzko axolagabekeriaren, garaiari eta giroari buruzko desegokitasun eta atzerakotasunaren aurkako erantzun bat bezala. Txillardegiren lehen nobelak izan zuen garrantzia batez ere hortan zegoen: etorkizunari buruz irekitzen zituen posibilidadetetan. Bigarrenaren «frakaso»a eta hirugarrenari buruz egin daitezkeen oharrak hildo beretik doaz: lehen nobelak espero-arazten zuena oso partzialki

soilik gauzatu zen hurrengo bietan. Txillardegiren lanaren ondoren, gauza asko gelditzen zen oraino konplitzeko euskal-nobelagintzaren eguneratzean.

Texto-inguru honetan ezarri behar da, hain zuzen, «Egunero hasten delako»: aurreko nobelagintzaren (Txillardegirena barne) kontrako erreakzio bat bezala, nobelari eta nobelagileari buruzko iritzi berri eta arras diferente baten adierazpen bezala. Hor daitza Saizarbitoriaren obraren garrantzia euskal-nobelagintzaren etorkizunerako. Ondorengo obrak hori kontuan harturik (onartuz nahiz ukatuz) gauzatuko dira halabeharrez, «tradizio» (hots, texto-inguru) berri baten barnean artikulatuko dira.

Saizarbitoriaren lehen nobela honek aportatzen duena, nobelagintzaren kontzepto berri bat da. «Egunero hasten delako»rekin, euskal-nobelagintza posibilitate zeharo berri batzuen aurrean gertatzen da. Nobela hau Txillardegiren «Elsa Scheelen»ekin bateratsu argitaratzen bada ere, argi dago batak eta besteak adierazten eta suposatzen duten nobela-kontzeptuek ez dutela elkarrekin ia zer-ikusirik. Eta diferentzia ez dagokio soilik formaren hauziari. Desberdintasuna maila guztietara hedatzen da. Mamiaren mailan ere nobelagintzaren bi ikusmolde zeharo bestelakoen aurrean aurkitzen gara. Hau egiaztatzeko aski da adibide bat jartzea: nola tratatzen duten ezkontza batak eta besteak.

Txillardegiren lehen nobelan hau irakur daiteke ezkon-berri biri buruz:

«Bidea aurkitu al dute bi oriek? Arkitu... aukeratu bai, beintzat. Azkatasuna galdu dute, alegia, baña gaurgero maite-kezkabiderik ez dute izango.

Orretzaz gañera alkar maite ba dute, zerrua ez al da ideki aientzat?

.....

Bi egi, bi alderdi, bi aro izan ditu orientzat bizialdiak: txikizitutik orain artekoa bata, ta gaurdanikoa bestea. Lenengoari utzi diote.

Alex ere, azken-kutsuren bat ez al du ezkontzak? Ordurarte, alde batetik, goruntz ez al doa gizona, andik aurrera beruntz eta illunpe beltzaren aldera abiatzen dela? Txikitzen ez al da gizona ezkonduz? Ezkongaietan zerbait ba nintzan, ezkondu-eta...

.....

Eztai-eguna igaro dute oriek. Gaztetasun betearen billa abiatutik, gaztaroa il dute. Sari garestia, egia esan, aukeramenean bai-datza

gizonaren izana. Eta ni beldur aukeratzeko. Gogorra da ori. Aukeratzeko larri-miñik ez dute aurrerakoan izango; bere ordex, aukeraketa egiña izatekoa izango dute lagun betirako. Damurik ote?

Egun gogoangarria, bada, orientzat, maia-tzeko au, muga, bide ta joera eman bai-dio te gaur beren biziari. Ez dute berriz ezer ere ikusiko orain arte bezela, ezkontzak aientzat mundua aldatu du-ta. Arroza xamurrak aien biotzai atzo itzegiten zienean, beste batera zuen elea. Illunabarrak, berriz, ez du sekulan izango atzo arte iraun zuen lillura-mota. Gaztango mintzoa, mututu egin zaie betirako. Atzo ere zituzten ametsak etzaizkie berriz otuko.

.....


Nolakoa ote da ezkonduetikiko loreen izkuntza?

Jaiotzatik ezkondu artekoa, ta ezkontzatik eriotzarakoa; orra bizitzaren bi zatiak: autatu ondokoa.» (27-29. o.)

Saizarbitoriaren obran, aldiz, honela ematen zaigu gai berbera:

«... Ezin ukatu ezkondu ez geranok raroak geranik, bainan ezkondukoek ere badituzute zuen gauzak... Nire iritziz bai emakumezkoek eta gizonezkoek berdin, galdu egiten duzute ezkontzean... Utzi, utzi konplementatzeak eta historiak. Ez da ez zuek uste duzuten bezala "libertatea galtzeagatik" diodala hau. Ez ez ez, gizona ez da libre ez estadu batean edo bestean... gainera, loturarik handiena, beste pertsona bat izanean ahal balitz... libertatea galtze hori, hala izanik ere, oso da txikia beste guzien artean. Pertsonak kentzen dizkiguten libertadeak dire gutxienekoak adiskide... Gizona ezkontzen danean dogmatiko bihurtzen da. Ezagutzen al duzu dogmatiko bat baino abere parregarriagorik mundu relatibu huntan? Nik asko soportatu behar izan diet nire lagun ezkondukoeri... [...] Ara! ikusten duzu horko neska hori? Ez. Bestea... Gabardina beltza duena... Ba, nire dentistaren amorantea da... Diruarekin erosi ditezken gauzak... C'est la vie! Ba nik ba dut lagun bat, Martin, ezkondu zan egunetik bihotz-bihotzez gorrotatzen dutana. Begira... kalean ikusten nuen bakoitzean eskuekin bere masaila potoloak egurtziz hau esan ohi zidan: "Egunean bi aldiz kentzen diat bizarra, badakik esijentziak..." Nik ezin esan

dut emakumeak ezagutzen ditudanik... Ez dut emakume bat ere ezagutzen hobekiago esateko... Sentidu biblikoan?... Ja ja ja... zuk egiten dituzu txisteak. Aizu eta... beste tragoxka bat botako bagenuke? Zuk ere ez dituzu ezagutzen...? Ba, harritzen naiz benetan. Ezkondutako gehienak trebeak zerate emakumeak ezagutzen. Galdetu bestela Martineri... Kasu batekin bakarrik "método de inducción completa" egiten du... Martinek ez dizu esango, "nik nire Maria ezagutzen diat". Ez, ez. "Emakumeak nik ezagutzen dizkiat" edo "emakumeak ezagutzeko ezkondu egin behar" esanen dizu. Nik esaten diodana, guziekin edo askorekin behintzat ezkondu behar... Ba ez, denak bere Maria bezalakoak omen dira. A! eta beste gauza bat, Martinek ez du maitasuna ezkontzatik kanpo konprenitzen eta ezta admetitzen ere noski. Horregatik konprenitzen du solteruen zera... solteruen beharra... Bai, pozik erreko dut rubio bat... Bainan hori ez da okerrera... eskerrikasko... Orain badirudi ezkontza kontua aldatzen ari dela, hobekiago jartzen noski... Lehen ordea... gizon bat ezkondu eta bukatu egiten zan... Zuek mutil-zahar geratzea, gauza penagarri bat bezala ikusiko duzute, bainan... ez, ez egia da, baliteke penagarria izatea mu-



*til zahar geratze hori. Eta ezkondutakoen
anbizioak nun geratzen dira? Nik esanen di-
zut: semeen etorkizunean. Akabo politika,
akabo literatura, akabo... dena! Solteroak
berriz gorde dezake beti amets bat patrikan.
Badakit situazio hori faltsoa dela... Zeh nahi
duzu ordea? Itxoitea hain da ordea... nola
esan? Konprenitzen nauzu ezta? Ilusio bat
gordetzea... itxarotea, ederra da, itxaro du-
guna inoiz ere ez dela iritxiko, arrats goibel
batzuetan. sumatzen ba dugu ere... Zuek be-
rriz, lehendabizio haurraren kukurruku ez-
tularekin... ametsa ibaira botatzen duzute.
Le Graseko direktoa... Zer ote du horrek
Le Gras-en? Dentistarekin week-end-a pasa-
tzera joanen da... Ez dago gaizki, e?»
(29-31. o.)*

Lehen zatian Txillardegiren nobela-kontzep-
toaren tasun guztiak aurkitzen ditugu. Gaiaren desa-
rroiloa saiakeraren teknikarik ortodoxoenaren arauera
egiten da, ez dugu beste erako erreferentziarik atze-
maten. Pentsamendu lojikoak gidaturik, desarroiloak
ez du inolako goi-beherik bere maila abstraktoan.

Bigarren zatian (eta zati honen tonika nobela
osoarena da) besterik da. Desarroiloa askozaz ere
banalagoa da, nahikunde intelektualik gabe. Ez dago
sakontasunik, baina ezta ere sakontasun-desirarik.

Are gehiago, obran anti-intelektualismo giro bat nabari da, honako pasarteotan adibidez:

«Estiloa izateko edukazioa behar da izan. Eskoletan edukazioa ematen ez delarik, ezin ba estilorik eman. Hau sijolismo bat dela uste dut...» (16. o.)

«... Zer gertatzen da izakerakin? Ikus ditek-e? Hutsa, ezereza, izakera, izaera, izatea, zera ta... Merde! Martin, Martintxo Heidegger. Merde.» (88. o.)

«Frogantzak» anekdotikoak dira («ba dut nik lagun bat...»; «Ni... ni esistenzialista nintzen. Zu ere bai? Ba ni gaur ez naiz iadanik, modatik pasia dagoelako...», 33-34.o.). Nabari da hitzegiten ari dena azken finean denbora-pasa bezala ari dela dirudiela. Haren iritziak irudiz azalezkoak dira eta eragozpenak ditu esan nahi duena adierazteko («horregatik konprenitzen dut solteruen zera... solteruen beharra...»; «Itxoitea hain da ordea... nola esan? Konprenitzen nauzu ezta? Ilusio bat gordetzea... itxarotea...»). Gorago eman dugun zatian, haren jarduna gutienez hirutan hausten da («Aizu eta... beste tragoxka bat botako bagenuke?»; «Bai, pozik erreko dut rubio bat...»; «Le Gras-eko direktoa...»).

Baina ezin da esan Saizarbitoriaren nobelak ez duela mamirik. Diferentzia ez dago hor, baizik

mami horri buruz autoreak hartzen duen jokaeran, mami horren zentzuan. Nobelan zerbait kontatzen zaigu eta gauza askotaz hitzegiten (1). Are gehiago, obrak dituen bi planoetatik bat historia-profesore berritsu baten ihardukiaz osatzen da. Bestalde, nobelak tesis bat du. Ez da, nobela ulertu ez duten zenbaitetik dioten bezala abortoaren defentsa eta gorazarre bat, baina bai konpondu gabe aurkitzen den problema baten salaketa, geure gizartean deliberatu ki baztertzen eta aipatzen ez den arazo baten adierazpena. Nobelan salaketa bat aurkitzen dugu, baina ez maila didaktikoan edo fiskal baten akten arauera-koa, baizik maila literario batetan, nobela baten bi-
dez, hain zuzen.

2.1.2. Mamiaren zentzuari buruzko ikuspegi berri honek ondorioz dakarren eraberritze formala da Saizarbitoriaren obrak duen alderik garrantzitsuena, lan honetan hartu dugun ikusmoldeetik, noski.

Eraberritze hau narradorearen aurrean hartzen den joeran nabari daiteke lehenik. «Egunero hasten delako»k euskal-nobelak orduraino erabili zuen narradore orojakilearen krisia nabarmentzen du. Sai-

(1) Maila honetan Saizarbitoriaren nobelak hauste bat suposatzen du euskal nobelagintzan, tratatzen dituen gaiakgatik eta, batez ere, gai horiei buruz hartzen den jarreragatik.

zarbitoriaren obran narradoreak ez daki inoiz pertsonaiek baino gehiago. Egia da pertsonaien barnean sartzen dela, hauen pentsamenduak eta sentimenduak ezagutzen dituela:

«... Maurice-k ez dagoela forman sentitzen du.» (42. o.)

«Hala guztiz ere urrengo bi egunak hortan pentsatzen ditu... Ez daki egin duena ondo ala geizki egin duen. Bere bizitzan lehen-dabiziko aldiz ez da gauza bere egitate bat juzgatzeko.» (46. o.)

«Orain ridikulua sentitzen da, nerbioak eztarrian koncentratuak.» (94. o.)

«... Nigar malkoak masailetan zear, mikatzak, expainetarino erortzen zaizkio.» (96. o.)
(1 bis).

Baina askotan narradorea objetiboa da, zine-kamara batek adieraz dezakeena azaltzera mugatzen da:

«Bainan burua jasotzen duanean, begi urdinak malkoetan estaliak ikusten zaizkio...»
(38. o.)

(1 bis) Azken zati hau kanpotik ikusita dagoela ba-dirudi ere, «mikatxak» hitzak kontrakoa adierazten du.

«... Besteak paperakin jarraitzen dute. Gisèle bueltatu egiten da. Ez du aserre itxurarik bainan ez die irriparik egiten ere.» (41. o.)

«Boltsan dituen gauza erdiak lurrera erortzen zaizka boligrafoa atera nahiean. Telefonua matraila eta bizkar tartean sujetatzen du. Fontanaz, Riemmes.

Telefonuaren bestaldetik Miller-en abotsa legorra dirudi.» (117. o.). (2)

Hildo berean, zenbaitetan narrazioa «nouveau roman»aren teknikara hurbiltzen da:

«... Kaleak ezkerreko aldetik eskailera batzuek ioaz enparantza batera ematen du. Eskaparate baten aurrean orrazkera konpontzen du.

—Barkatu bainan isteko ordua da.

Burnizko persiana bat jeisten dute. Dendako gizonak aurpegira begiratzen dio lehen-dabizi eta gero zangoetara. Jolasean dabilten haur batzuen pelota bere oin parean geratzen da. Ezker aldera jotzen du eta eskailera ioaz enparantza ikusten du. Txikia da. Erdian bur-

(2) «Dirudi» hau narradorearen inpresio bat da, ez pertsonaiarena. Bestela, «iruditzen zaio» edo horrelako zerbait beharko litzake.

nizko irudi bat dago, gizon bat belauneetan liburu bat duelarik, harri baten eseria. RIEMMES-KO HIRIAK JEAN BOUVET HISTORIADORE OSPETSUARI 1881.» (125. o.)

2.1.3. Narradore orojakilearen desagertzeak dakarren hutsunea betetzeko gure mendeko nobelagintzak teknika berriak desarroilatu ditu. Hauen artean inportanteenetako bat «kontzientzia-korronte»a (stream of consciousness) deritzana izan da.

Kontzientzia-korronteak, Locke, Jung eta Freudek postulatu zituzten kontzientziaren asoziazio libbrearen printzipio psikolojikoetan oinarritzen den literatur-teknika da. Teknika hontaz baliatzen den ikuspegi bati, «barne-bakarrizketa» deritza.

Barne-bakarrizketan pertsonaiaren baita, haren pentsamenduak eta barne-ihardukiak zuzenki adierazten zaizkio irakurleari, narradorearen bitartekotasunik eta interpretaziorik gabe. Honen bidez gertatzen den pertsonaiaren eta irakurlearen arteko hurbilteza gaurko nobelagintzaren tasunetatik bat da.

Barne-bakarrizketa ez da gaurko nobelagintzaren aurkikunde bat. XIX. mendean ezagutzen zen eta Tolstoik «Sebastopoleko historiak» (1855) eta

Dovstoievskik «Lurpeko memoriaoak» (1864) obretan erabiltzen dute. Barne-bakarrizketa honen eta ohizko dramatikaren bakarrizketaren artean funtsezko diferentzia bat agertzen da: ohizko bakarrizketa pentsaera lojikoak gidatuta eta kontzientziak zeharo kontrolatuta gertatzen da. Barne-bakarrizketa, aldiz, pronuntziatzen ez den eta entzulerik ez duen iharduki bat da berez. Pertsonaiak, lehen pertsonan, inkonszienteari hurbiltzen zaizkion pentsamendu-moldeak jalgitzen ditu, oraino lojikaren bidez ongi taxutu gabe aurkitzen direlarik. Teknika hori Joycek desarroilatu zuen bere «Ulysses»ean, batez ere azken partean Molly Bloomen bakarrizketaren pasartean eta oso erabilia da gaurko nobelarien artean.

Kontzientzia-korrontean, endelguaren maila guztietatik (prekonsziente, subkonsziente, inkonsziente eta are suprakonszientetik) sortzen da kontatzen dena. Kontzientziaren aktibitatea, irudi batek beste bati eragiteko duen boterean oinarritzen da. Irudi-elkartze hau, kidetasunez nahiz kontrastasunez lor daiteke, memoriaaren, zentzuen eta irudimenaren bitartez. Memoriaak eta irudimenak, ohizko nobelaren preterito beharrezkoa baztertzeraz uzten du, zer-nahi giro eta denbora-joku permitituz.

Teknika hontaz erruz baliatzen da Saizarbitoria narradore orojakilearen desagertzearen hutsunea betetzeko:

«... Ile luzea aurpegi aurretik paper gainean erortzen zaio eta profesoreari begiratu behar dion bakoitzean, burua oso atzera botatzen du bi eskuekin ilea belarri atzean sujetatuz...

Lekuen-lekua... Eta zer esan nahi du horrek? Berdin da beste bateri galdetuko diot klasea bukatzean... Lekuen lekua. Espazioa eta denbora. Tempus est numerus motus... San Tomas Napolesko kaleetan "trivium" eko liburu bat besapean daramala.

«"Ni naiz ongiaren eta gaizkiaren jakitearen berri dakidan mutikoa"

... ez Aristoteles-entzat espazioa ez da sustantzi bat, gorputzen propietate bat baizik... Goi-ko leihotetatik eguzkiak zuzenik eta gogor jotzen du klasean.» (39-40. o.)

Zatiaren Erdiko lerroak «kontzientzia-korronte» teknikaz taxutu dira. Gisèleri «lekuen lekua» irudiak sor-arazitzen dion pentsamendu-herrenkada ez du lojikak gidatzen. «Lekuen-lekua»tik, Aristotelesen filosofiaren bi gontzeptutara iragaiten da: espazioa eta denbora. Honek aristotelismoaren denboraren definizioa erakartzen dio gogora, San Tomas filosofo aristotelekoaren hitzez: tempus est numerus motus... Ondoren, San Tomas imajinatzen du Napolesko ka-

leetan paseatzen, estudiante-garaietan, «trivium»eko liburua besapean zeramalarik... (3)

Gehienetan, narradorearen ihardukia parrafo berberean kontzientzi-korrontearekin nahasten da (4), baina, aurreko zatian bezala, pentsamendu ez-lojiko batez:

«Ex niñan uste horren erreza izanen zenik. Ex din esaten duten hainako mina egiten. Gorputza abandonatua bezala sentitzen du... Bainan nola? Etzaio axolik. Hamasei urtekin, nola ilea moztu zuen akordatzen da. Eskolako neska guzien inbidia zen... eta egun batean ispillu aurrean bere burua "garçon" estilora ikusi zuen. Ez zuen nigarrik egin...»

(3) Argi dagoenez, zati honek irakurlearen kolaborazioa eskatzen du, ez zaio hari dena egina ematen, aurreko parrafoan eman dugun argibidea irakurle bakoitzak egin behar duen lan bat da. Gainera, zatia bere zentzu osoan ulertzeko filosofia aristotelikoaren ezaguera bederen oinarritzko bat behar du irakurleak. Baina irakurlearen arazo hau ez dugu hemen ikuitzen, ez garrantzitsu ez delako, arrazoi metodolojikoakgatik baizik.

(4) Saizarbitoriaren obran, barne-bakarrizketa gehienetan hikaz ematen da, baina ez beti, batzutan zuka ematen baita. Badirudi hau azken orrazketa baten faltaren ondorio dela, nobelan nabari diren beste zenbait idazte-huts bezala. Bestalde, nobelak erredakzio bat baino gehiago izan bide zuen: obraren bukaera-eguntzat 1968ko apirilaren 25a ematen da, baina 107. orrialdean «Humanae vitae» entziklika aipatzen da, zeina 1968ko udaran publikatu baitzen.

*Sensorio, sensorio... Seminarista antiojo-
dun hori zein mundutan bizi ote den. Ez zi-
dan beinere hitzegin... Zein mundutan bizi
ote den? Ostiraleroko zilizioa... haragia ahula
baida... Deabrua, mundua eta haragia. Mau-
rice haragizkoa edo hobe Maurice-ren hara-
gia. Giaha-ra... Kanpaiak isildu egin dira...
Txikitan kanpai hotsa entzutean nigar egiten
zuen. Beti norbait hila zela uste izaten zuen;
bere amonaren herrian norbait hildakoan jo-
tzen zituzten... Txikitan asko gustatzen zi-
tzaizkion mutikoak, beti izaten zituen bi eta
hiru «nobio» batera...*

*Euri lanbroak leihoko kristaletan jotzen
du...» (44. o.)*

*«Zirko musika antzeko bat entzuten da.
Atzetik txistu egiten diote. Viens ici. Etorri
kuttuna gauzatxo bat erakutsiko dizut eta.
Harnasa estutu egiten zaio, ezin du gehiago.
Etorri bihotza. Mozkorraren abotsa urruti en-
tzuten da. Udaberria bai, udaberria. Rue de
la Fontaine Riemmes-en abortatzea libre den.
Bainan zein kondiziotan? Nekatua negon oso
nekatua. Abortiboey. Nori galdetu? Galderak
buruan dantzatzen diote.» (99. o.)*

Nobelaren plano oso bat kontzientzi-korron-

tearen teknikaren beste molde batez ematen da. Pertsonaia baten bakarrizketa da, baina A. Camusen «La Chutte»n bezala, bakarrizketa hau elkarrizketa bate-tik sortzen da, beste pertsonaiak mututasunera behar-tuz. Pertsonaia hauk ere parte hartzen dute nobelan eta zenbaitetan zer egiten, zer galdetzen edo nola pentsatzen duten ere badakigu, baina bakarrizketa daraman pertsonaiaren bitartez, kasu honetan histo-ria-profesore baten bitartez:

«... Beste kafe bat? E, hi gazte! Eta kopatxo bat? Hi gazte bi kafe eta bi kopa. Bai edozein marka. Ba estazioak ez zaizkit laket, bainan estaziotan gutxien atsegin zaidana... Ez, ez beltza, erretzen dut. Zuk ere ikusi izanen ze-nuen edozein estaziotan...» (13. o.)

Ikusten dugunez, irakaslearekin hizketan ari denak bi aldiz erantzuten dio baietz, hark bi kafe eta bi kopa eskatzen baititu. Gainera, ondoren tabako gor-ria eskaintzen dio. Bestalde, kamerariak ea zein mar-ka nahi duen galdetzen dio, hark «Bai edozein mar-ka» erantzuten baitio. Prozedura hau nobelaren pla-no honen hedadura osoan erabiltzen da, estazioan nahiz telefono-zentralean. Lortzen diren ondorioak aipagarriak dira: lehenik, berez oso aspergarri gerta-tuko litzakeen sermoi bat eramangarria egiten da (5),

(5) Ez honegatik bakarrik; baina ezin daiteke uka

monotoniaren eta ritmo-gabeziaren arriskutik begiratzen baitu bakarrizketa. Bestalde mamiaren dentsitate apaldu egiten da kontatzen denarekiko funtzional ez diren mozketak eta tarteratze hauen bitartez.

Teknika beraren zenbait alde hobeki desarrolatzen dira pasarte elkarrizketatuetan. Adibidez:

«... Bereala deitzen zeoat Jacques-eri. Hi, Giséle ikusi al duk?

Ez.

Nik atzo ikusi nian, ikaragarri ona zegoak. Hor nunbaiten sardina lata bat zeukeat, gosez derrepente hiltzeko zorian natxiok. Irekiko dut? Nik hire lekuan, gorde eginen nitek, neskak merezi dik. Jacques Favre mesedez? Jaean Louisen partetik. Bai. Ohean zegoak oraindik alu hau, nik ere hala behar nian. Zergatik hautsi behar duk behin oheratzen haizekan neska guziekin? Ajendan bat baino gehiago gordetzen ikasi behar duk gazte! Jacques? Ni nauk, Jean Louis...

Ba nik ez diat sardina lata hori ikusten.

Ezkerreko kajoian. Zera... espainiar ha-

alde formal honek ere laguntzen duela narrazioaren eramangarritasunera.

*rietako batek deitu zidak. Begiratu zak arma-
rio gainean... ezin omen ditek... nik etzekiat
zergatik. Iriki zak bestela gureizekin. Eta nik
zer nahi duk egitea? Neri izeba baten etzekiat
zer kontatu zidatek, beste planen bat izanen
ditek... Ze, iriki duk? Ez Maurice-kin ari
nauk.» (61-62. o.)*

Pasarte honetan Maurice sardina-lata baten bila ari da, bitartean Jean Louisek Jacquesi deitzen dio telefonoz eta berarekin hitzegiten du eta, batera, Mauricerekin, Jacquesez, Gisèlez eta sardina-lataz. Narradorearen desagertzeak ritmo eta arintasun berezi bat ematen dio zatiari, egintza elkarrizketaren bitartez aintzinatzen baita soilik. (6)

2.1.4. Beharbada, elkarrizketaren erabilketa da Saizarbitoriaren obrak euskal-nobelagintzara ekartzen duen elemento interesgarrienetako bat. Doinu lekla-matorioa baztertu egiten da eta elkarrizketaren hizkuntzari oso egoki zaion neutrotasun eta naturaltasun bat lortzen da jeneralean:

(6) Zenbaitetan narradore orojakile nahiz ez-orojakile batez baliatzen da efeko berberak lortzeko. Horrela, 69. orrialdeko pasartean Maurice hibaira harriak botatzen ari denean.

«—Beno hi... honek ez zeukak motorrik.

—...

—Zer, ematen diok ala ez?... Hoztutzen ari nauk.

—Txumazera izorratu zitzaidak...

Jean Louis-ek Maurice-n txumazerari begiratzen dio.

—Txumazera ondo daukak, hik geizki ditukanak zerak dituk, giltzurriak.

—Ez zeukeat arraunean egiteko gogorik...» (55. o.)

«Dutxetan sartzen dira...

—Emanidak jaboia.

—Gisèle-gatik duk? Baietz!

—...

—Juez jauna, defensaren ixiltzea baino prueba bortitzagoa behar duzu? Maurice gizona... Kalabazak, e? Izorrai! (57. o.)

«—Haurdun nago.

—Haurdun.

—*Bai, haurdun.*» (104-105. o.)

Naturaltasun hau lortzen (pentsamendu ez-lojikoan ikusi zen bezala) tema-nahasketez maisuki baliatzen da zenbait mementutan:

«... *Zertarako etorri aiz?*

—*Ez zekiat.*

—*Koño! Ba nik ere ez. Preparatu idak Nescoré bat eta sartu esne botilla .Bigarren kajoian.*

—*Zenbat?*

—*Zenbat ze.*

—*Nescoré.*

—*Nahi dekekana. Bainan ezitzean etxeratu behar?*

—*Bai, zenbat esne?*

—*Nahi dekekana. Eta orduan?*

—*Ez zekiat, bihar edo etzi joanen nauk.*»
(60. o.)

Nahasketa hau, pasarte batetan, kanta baten hitzez korapilatzen da:

«... Zer egin behar duk Gisèle-rekin?

—Joan den egunean uzteko esan idaken.

Jean-ek diska bat jartzen du.

—Zer egin behar dekan, ez nik zer esan niaken.

”J’arriverai le soir”.

—...

—Nire iritzian, hik oso taktika zikinak erabiltzen dituk. Maite zaitut, hau, hori eta bestea esan ta gero, gero geizki geratu behar.

—Ez duk behintzat moralizatzen hasteko barrabilik izanen.

”J’arriverai le soir dans une chambre...”

—Ez moteil... Hik, nire iritziz, e? Gauzak normalago egin behar itukek. Alegia, hik ba... pospeloak ikusi dituk? Maurice-k sua ematen dio. Begira nik garbi jokutzen diat hortan, ”dans une chambre et toi”, ez idak esan ezetzik.» (62-63. o.)

Eraberritze formal hau beste alde askotara hedatzen da. Horrela, letrero eta anuntzioez egiten den erabilkuntza:

«Jendea bulegotik ateratzen den ordua da. Abenida, kafeterien argi dirdiratsuak animatzen dute,

LE DON JUAN... LAS VEGAS... BOITE... BUVEZ COCA-COLA... CHEZ MONIQUE... *Burugabe bat naun. Inkosziente bat. Lepoan Maurice-n musuak sentitzen ditu. Erreaz bezala... Maitalearen gorputza oraindik gainean, besarkatzen balu bezala... Aho-ko gusto hura, Maurice-ren sorbaldaren azala...*

REX... MON CHEZ MOI-SNACK BAR.. RIVOLI DANCING...

—... *bai, bai, berak esan zidan...*» (49. o.)

Halaber, «Zortzi» partearen azken aldean erloju batek adierazten digu hirutan orduaren berri. «Hamabi» partearen kontsultazioko pasartearen egilea zuzenki baliatzen da Gisèle irakurtzen ari den errebistaren berriez eta zai dauden beste pertsonaien hizketez.

Asmo berberaren barnean ezar daitezke galdera-erantzun teknikaz idatzi diren pasarteak («Hamasei» eta «Hemezortzi» parteetan), «Hamasei» partearen hirugarren zatia, aldizkari-artikulo ba-

ten gisa emana, eta «Hemezortzi» partean irakurtzen dugun afixea.

2.1.5. «Egunero hasten delako»k izan dituen kritika negatiboak formari buruzko ardura honegatik izan dira batez ere, zenbait sektoretan behintzat: ez omen dago giroa euskal-nobelagintza azalezko luxu horietatik abiatzeko. Inporta duena gaia omen da, nobelari kontatzen dena, gainerakoak teknikariak omen dira. Kritika hau Saizarbitoriaren nobelari egokitzen zaion ala ez eztabaidatzen hasi gabe, (7) komenigarri dateke honi buruz zerbait esatea. Egia da temak nobela egiten ez duen bezala, ez duela ere egiten teknika soilak. Nobela ez da argumentoa, baina ezta ere argumento hori adierazteko erabiltzen den teknika. Hain zuzen, gaur egun lantzen diren teknika berrien abantaila funtzionaltasunean datza. Teknika hauk ez dira berez zilegiztatzen: nobelatzen den errealitateak zilegi ditzazke soilik. Bestela, teknikarian erortzen da egilea ezinbestean.

Baina nobelagilearen egiteko bazter-ezina gai eta egoera bakoitzari ongien dagokion teknika eta tratamoldea aurkitzea da. Gaur Mozartzen gisara kon-

(7) Aipatu dugu gorago, nahiz bidenabar, Saizarbitoriaren obraren inportantzia mamiaren aldetik. Ez bagara gehiago hedatu puntu honetan, arrazoi metodologikoakgatik izan da.

posa ezin daitekeen bezala, ezin daiteke Balzac edo Tolstoiren modura nobela (8). Garai bakoitzak problema, gusto eta sensibilitate bereziak ditu. Hauk errespetatzen ez dituen nobelaria alfer-lan batetan ariko da nahi-ta-ez.

Ez da hemendik segitzen ezin daitekeela nobelagintzan inguratzen gaituen errealitateari buruz konpromiso bat har. Literatura «bide bat» da, baina baita ere «helburu bat»: estetikari buruz zilegiztatzen ez den nobela bat ezin baitaiteke errealitatearen lekuko eta salatari efikaz bat izan. Intentzio onek ez dute ezertarako balio kontzientzia literario egiazko batekin elkartzeko ez badira. Literaturak, «util» izateko, leheneik literatura izan behar du, literatura bezala justifikatu behar da. Zeren militante on izateak ez baitu, besterik gabe, idazle on izatea ekartzen.

Barcelona 1972, udazkena-negua.

(8) Honek ez du esan nahi ezin daitekeela haienganik irakaskintza balios bat har, eta are gutiago ezin daitezkeela haien nobelak atseginez irakur.

AURKIBIDEA

1.	ERABERRITZE PROBLEMATSU BATEN PROBLEMAK : TXILLAR- DEGIREN NOBELAGINTZA	9
1.1.	LETURIAREN EGUNKARI EZKU- TUA	9
1.2.	PERU LEARTZAKO	25
1.3.	ELSA SCHEELEN	43
2.	NOBELA MODERNO BATERANTZ: R. SAIZARBITORIAREN «EGUN- ERO HASTEN DELAKO»	59